



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2019ko azaroak 7
Ordua: 18:00 – 18:30
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Alazne Lafragua Ureta
Encina Castresana Astarloa
Jose Miguel Vadillo Ribacoba

Ez dira bertaratu: Miren Izaskun Perez Barragan eta Joseba Elejalde Ribacoba, ez etortzearen arrazoiak eman dituztenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 18:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: Arratsalde on. Hasiera emango diogu Azaroko ohiko osoko bilkurari. Gaurkoan, Udal Igerilekuen berriztatze obrak esleitzeko baldintzak jorratuko ditugu. Horrez gain, Barratxi Guraso-Elkartearekin Udalak daukan hitzarmenaz arituko gara, eta Jesus Romeo Gorriari adopzioko semearen izendapena kentzea eztabaidatuko dugu, besteak beste.

Arratsaldeon, ongiatorri osoko bilkurara, eta hasteko, gai-zerrendari heldu aurretik, sartu den puntu berri bat bozkatu behar dugu premiaz, bozeramaile ezberdinei helarazi zaiena, zerikusia duena..., hain justu, behin betikoa dela iritsi da, hirigintza-aldaketa dagoeneko onartuta dagoela, arau subsidiarioetako 4. aldaketa, eta 2016. urtetik dakarkigun kontu bat da, eta justu iritsi egin da eta amaituta uztea erabaki dugu, osokoan sartu eta aurrera joan dadila, bestela, hurrengo ohiko osoko bilkura urtarrilean izango da, beraz, beste ezer baino lehen akordioa bozkatu behar dugu premiaz.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

1.- 2019ko ekainaren 26an eta irailaren 19an egindako saioetako aktak onartzea.

Alkatea: akten inguruan ezer aipatu nahi baldin baduzue.



2019ko ekainaren 26ko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu taldekoak (4) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (1)
Onartuta geratu da.

2019ko irailaren 19ko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu taldekoak (4) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (1)
Onartuta geratu da.

Alkatea: azken akta, urriaren 3koa, hain justu amaitu zen... gai-zerrenda bidalita genuen jadanik eta oso luzea izan zen, azkenean pasatzea kostatu egin da, eta orduan justu gai-zerrenda bidalita genuenean iritsi zen, beraz datorren osoko saiorako utziko dugu.

Ascension Hormazabal Meabe: urriaren 15ekoa ere hor dago, hauteskunde-mahaiaren zozketaren ingurukoa. Urriaren 3koa eta 15ekoa falta dira.

2.- Ezaugarrien koadroa eta Baldintza Administratibo eta Teknikoen Pleguak onartzea eta Udal Igerilekuak egokitzeko obra kontratatzea.

Alkateak 2019ko urriaren 30ean egin zen Natura eta Hiri Inguruneko, energia, ur, mendi, Ingurumen, lan eta hondakinen kudeaketarako Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du:

“2019KO URRIAREN 30EAN EGIN ZEN NATURA ETA HIRI INGURUNEKO, ENERGIA, UR, MENDI, INGURUMEN, LAN ETA HONDAKINEN KUDEAKETARAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

- Udal igerilekuko obretako baldintzen Pleguak onartzea,

“Ikusirik 2019ko irailaren 12an Tokiko Gobernu Batzordeak “La Bárcena” auzoan dauden udal igerilekuak egokitzeko Iñaki Aristondo Iciar arkitekto jaunak idatzitako proiektua, 2018ko uztailaren 16an aurkeztua, onartu zuela, zeinaren aurrekontua hirurehun eta laurogeita hamasei mila eta laurehun eta hirurogeita bederatzi euro eta laurogeita bederatzi zentimokoa (396.469,89 €).

Kontratazioaren ezaugarriak aintzat hartuta, prozedura egokiena Prozedura Ireki sinplifikatua dela erabaki da.

Dokumentazioa aztertuta, baldintza teknikoaren pleguak idatzita eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezartzen denarekin bat etorritik, Udalbatzak ADOSTU du:



LEHENA. "Udal Igerilekuak egokitzeko obren Kontratua" Prozedura Ireki Sinplifikatu bidez elektronikoki kontratatzeke Ezaugarrien Koadroa eta Klausula Administratibo Berezien Pleguak onartzea:

EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATU MOTA: LANAK
PROZEDURA: IREKIA SINPLIFIKATUA
SPKL legea **159. artikulua**

IZAPIDEA ARRUNTA
ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTUA **Ez**
KONTRATAZIO-ORGANOA ARTZINIEGAKO UDALA

A) KONTRATUAREN XEDEA. CPV NOMENKLATURA SORTAKA BANATZEA.
A.1) KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea:

ARTZINIEGAKO UDAL IGERILEKUAK EGOITZEKO obrak egikaritzea, indarreko araudira egoki daitezen eta, aldi berean, egungo arazketa- eta iragazketa-sistemak berritzea.

CPV nomenklatura kodea: 45212212-5 Igerilekuak eraikitzeke lanak.

Egikaritzearen lekua (NUTS kodea): ES211

A.2.) SORTAKA BANATZEA: EZ.

B) KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA GEHIENEZKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK

B.1) KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Lizitazioaren aurrekontua (BEZ aparte) 327.661,07 €

Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZ aparte).

Uneko aukeren zenbatekoa (BEZ aparte)

Luzapenaren zenbatekoa (BEZ aparte)

Lizitazailleen artean banatzeko primen zenbatekoa (BEZ aparte)

BALIO ESTIMATUA GUZTIRA 396.469,89 €

KONTRATUAK OROHARREKO PREZIOAN

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA: 396.469,89 €

LIZITAZIO MOTA (BEZ aparte): 327.661,07 €
BEZ APLIKAGARRIA % 21

UNITATEKO PREZIOKO KONTRATUAK

Unitateko prezioak/Egikaritze Proiektua: **EZ** esleitzeko (oroharreko prezioan)



esleitzen da), baina proposamen teknikoan jaso behar dira (I. eranskina).

Kontratua oroharreko prezioan esleituko da. Dena den, Pleguko I. eranskinean adierazten den moduan, proposamen ekonomikoari unitate prezioen banakatze bat gaineratu beharko zaio, eranskin modura, proiektuko aurrekontu partzialetan agertzen diren obra-unitate bakoitzerako, eta, eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko baliagarri izan zaizkionak lizitatzailari. Unitate prezioen zerrenda hori eskaintza ekonomikorako egokitzapen-maila balioesteko izango da baliagarri eskusiboki eta, ez dira, inolaz ere, kontratuan sartuko, eta obrako ziurtapenatarako ere ez dira aplikagarri izango, non lizitatzailak lizitazio motarekiko ea proiektuko unitateko prezio guztietarako modu berdinean aurkeztutako eskaintzari dagokion behearen portzentajea aplikatuko baita.

SORTAKA BANATUTAKO KONTRATUAK. EZ

C) FINANTZAKETA: URTEROKOAK

Kontratu honetako betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko behar den kreditua badago, izan ere, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza dago, 2018-2019 Lan eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura, 160.662,87 euroko zenbatekoaz. Gainerakoa Artziniegako Udalak ordainduko du erakundearen berezko baliabideak aplikatuz.

URTEA ZENBATEKOA	AURREKONTU-APLIKAZIOA
2019 396.469,89	Udal Igerilekuak Egokitzea

Aurretiazko izapidea: **EZ**

D) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Dagokion ala ez: **EZ**
Aplikaziorako indize edo formula polinomikoa:

E) ESLEIPEN-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratatzailaren Profila - Administrazioaren Ataria: **KONTRATAZIO PUBLIKORAKO**
PLATAFORMA EUSKADIN
www.contratación.euskadi.es

Lizitazio-sistema eta kontratazio elektronikoa **BAI**
<https://www6.euskadi.net/lizitazioa>
Kontratazio-organoari dagokion zerbitzua:

- Kontsulta ekonomiko eta administratiboak:
Artziniegako Udala
Telf.: 945 39 63 53
Faxa: 945 39 64 02
helbide elektronikoa:
aartziniega.ascen@ayto.araba.eus

Harremanetarako pertsona. Artziniegako Udaleko Idazkaritza (Ascen Hormazabal)

- Kontsulta teknikoak:
Telf.: 607212843
Faxa:
helbide elektronikoa:

i.aristondo@gmail.com



Harremanetarako pertsona. Proiektuaren idazlea eta Obrako Zuzendaria
Iñaki Aristondo Iciar

Informazio gehigarriaren eskaera aurkeztea:

Lizitazioa aurkezten den egunetik proposamenak aurkezteko epea igaro baino 6 egun
lehenagora arte.

**F) ENPRESA LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA, ETA
TEKNIKOA EDO PROFESIONALA EDO ESKA DAITEKEEN ENPRESA GAIKUNTZA EDO
PROFESIONALA SAILKAPENA**

SPKL legeko 78.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Europar Batasuneko Estatu Kideetako edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetako enpresari ez espainiarrei ez zaie sailkapena eskatuko, kontratuan bakarka parte hartu zein elkartuta parte hartu, kaudimenari dagokionez jarraian adierazten diren betekizunak egiaztatzeko betebeharraren kalterik gabe:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

Bide hauetako edozein erabiliz egiaztatu ahalko da:

a) Arrisku profesionalen ondoriozko erantzukizun zibileko aseguru bat obrak amaitu bitartean indarrean izatearen egiaztatzea, berme-epea barne, kontratuaren balio estimatuaren zenbatekoa edo hortik gora estaltzekoa.

b) Negozioen urteko bolumena kontratuari dagokion esparruan, azken hiru ekitaldien barnean ekitaldi onenari buruzkoa, zenbatekoa gutxienez kontratuaren balio estimatua halako bat eta erdi izanik.

Onartu eta Merkataritza Erregistroan gordetako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresa bertan izena emanda balego eta, bestela, izena emanda egon beharko lukeen Erregistro Ofizialean gordetako bidez. Merkataritza Erregistroan izen emanda ez dauden enpresa indibidualek beren inbentario-liburuekin eta urteko kontuekin, Merkataritza Erregistroak legalizatuak, egiaztatuko dute beren negozio-bolumena.

Kaudimen tekniko edo profesionala:

Azken bost urteetan egikaritutako obren zerrenda, kontratuari dagokion sailkapen multzo edo azpimultzo berekoak, egikaritze oneko ziurtagiriek abalatura. Bertan adieraziko dira zenbatekoa, datak eta obrak egikaritu diren lekua, eta lanbideak arautzeko arauak betez eta behar bezala gauzatu ote ziren zehaztuko da, eta obretako baten zenbateko indibiduala gutxienez, kontratu honen balio estimatuaren gutxienez berdina izatea eskatuko da.

SPKL legeko 88.2. artikulua arabera, sortu berri diren enpresen kasuan, horien kaudimen teknikoa SPKL legeko aipatu 88.1 artikuluko b) eta f) bitarteko idatz-zatietan adierazitako bideetako bat edo gehiago erabiliz egiaztatuko da.

Enpresa-gaikuntza edo profesionala.

KONTRATISTAREN SAILKAPENA Ez da beharrezkoa.

Kaudimena egiaztatze aldera, honakoa da sailkapena:

Multzoa	Azpimultzoa	Kategoria
E	1	2
G	6	2



Obra-kontratuen esleipendun suertatzen diren Batasunaz aparteko enpresei Espainian sukurtsal bat irekitzea eskatuko zaie, ahalordeak edo ordezkariak izendatuz eragiketak burutzeko, eta Merkataritza Erregistroan izen emateko eskatuko zaie, era berean: **BAI**

Publizitatez egiten diren prozedura mugatu eta negoziatuetan: **EZ**

G) ALDAKETAK

Aldaketak aurkezteko aukera: **EZ**

H) ADMINISTRAZIOAREN ERREGISTRO NAGUSIAREN HELBIDEA.

Parte hartzeko eskaintza eta eskaerak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorritz.

I) ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK HELARAZTEKO EPEA.

Muga-eguna: hogeiei egun natural izango dira, Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata balitz edo egun balioduna izango ez balitz, proposamenak helarazteko epea hurrengo egun baliodunera atzeratuko da. Edozein kasutan, eskaintzak aurkezteko muga-ordua epea emaitzen den eguneko arratsaldeko 14:30etan izango da.

J) FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESLEIPEN-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA BETEKIZUN TEKNIKOAK

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak gutun-azal bakarrean aurkeztuko dira (artxibo elektronikoak). Gutun-azal hori lizitatzailleak sinatu beharko du eta idazkun hau izan beharko du: «Artziniegako Udala igerilekuetan egokitzeko obren kontratazioaren lizitazioan parte hartzeko proposamena».

Honatx hartako edukia: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA, PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

- a) Proposamen ekonomikoa. Proposamen ekonomikoa eskainitako balioa lizitazioaren xede diren obrak egikaritzeko kontratuaren prezio modura adieraziko da, jasanarazi beharko den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoaz aparteko partida modura, I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Hala badagokio, berme-epea luzatzeko edo obrak egikaritzeko epea murrizteko konpromisoak gaineratuko dira aipatu Eranskinean adierazitako moduan formula bidez kuantifika daitezkeen irizpide gisa.
- b) Lizitatzaillearen Adierazpen Arduratsua, IV. eranskinean jasotzen den EREDUARI jarraiki, eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkariak izatekoa; kaudimen ekonomikoa, finantzario eta tekniko egokia izatekoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena; jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimenak izatekoa; kontratatzeko inolako debekurik ez izatekoa; eta haren kaudimena kanpoko bitartekoak erabiliz frogatzekotan SPKL legeko 75.2. artikuluan aipatzen den konpromisoa izatearen inguruan adieraziko da. Enpresak SPKL legeko 75. artikuluekin bat etorritz beste enpresak batzuen kaudimen edo bitarteko batzuei heltzen badie, horietako bakoitzak, era berean, Adierazpen Arduratsua aurkeztu beharko du, kasu horietarako eskatzen den informazioarekin IV. eranskinean jasotzen den EREDUAREN Arabera. ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTE batean sartuta lizitazioan parte hartzen duten enpresen kasuan, IV. eranskinean jasotzen den EREDUAREN arabera Adierazpen Arduratsua Aldi



Baterako Elkarketa osatzen duen enpresa bakoitzak egingo du. Horrez gain, Aldi Baterako Elkarketa osatzen duten enpresen izena eta inguruabarrak adierazteko dokumentu bat aurkeztu beharko dute, horietako bakoitzak duen partaidetza, elkarketaren ordezkari edo ahalorde bakarraren izendapena, eta kontratuaren esleipendun izanez gero Aldi Baterako Elkarketa formalki eratzeko konpromisoa adierazita, SPKL legeko 69.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Lizitatuzailearen Adierazpen Arduratsuan, Europar Batasunaren barnean onartutako Kontratazioarako Europako dokumentu bakarraren inprimaki normalizatuarekin bat etorriz, enpresaren helbide elektronikoa bat barneratu beharko da edo, hala badagokio, ABEE elkarketarena, hari dagokion jakinarazpenak igortze aldera, SPKL legeko Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoari jarraiki.

- c) Hala badagokio, gutun-azalean, enpresa-multzo bateko kide izatearen adierazpen berariazkoa gaineratuko da, V. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

K) KONTRATAZIO-MAHAIA.

Osaera:

-Presidentea Artziniegako Udaleko Alkatea izango da, Joseba Vivanco Retes, edo hark delegatutako pertsona.

-Batzarkideak, Ascension Hormazabal Meabe idazkaria, Jesus Maria Diego Oteo eta Ekonomia Garapen eta Lurralde Oreka Saileko funtzionario bat, Arabako Foru Aldundiak izendatuak, edo horiek delegatutako pertsonak.

-Idazkaria, fede-emailea, Berea Aretxabala Rebolleda andrea, edo hark delegatzen duen pertsona.

Langile adituen / organismo tekniko espezializatuen batzordea.- **EZ**

L) PROPOSAMENAK IREKITZEKO LEKUA, DATA ETA ORDUA

Kontratazio-mahaiak 2019ko azaroaren 29an irekiko ditu Gutun-azalak (artxibo elektronikoak), eguerdiko 12etan, horretarako Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapen eta Lurralde Oreka Sailak gaitutako lokalean, Gasteizko Probintzia Plazako 5. zenbakian, lehen solairuan kokatzen dena.

Elektronikoa.

Proposamenak adierazitako egun eta ordutan ireki ezingo balira, data edota ordu berria jakinaraziko da, kontratatzailearen profilean argitaratuz.

Jarraian, Kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu, aldez aurretik, hala badagokio, pleguko betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak kanpoan utziz, eta esleipenaren proposamena puntuazio onena duen hautagaiaren alde emango du, SPKL legeko 59. artikuluan adierazitako moduan.

M) ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA NEGOZIAGARRI DIREN ALDERDIAK

Formula bidez ebalua daitezkeenak:

1) Eskaintako prezio baxuena. Gehienez 50 puntu.

Gehienezko puntuazioa emango zaio aurkeztutako eskaintzen batez bestekotik % 20ko portzentaje baxuagoa denari eta zero baliora jaitsiko da modu linealean, lizitazioaren prezioarekin bat etorriko dena.

Horretarako, formula hau aplikatuko da: $P = 50 * (M - Ae) / (M - B)$

Non

P = Aztertutako eskaintzak eskuratutako puntuazioa.



M = Lizitazio mota.

Ae = Aztertutako eskaintza.

B = aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoen % 80.

Eskaintzaren baten edo gehiagoren kasuan balio anormal edo desproporzionatuak agertuko balira, eta onartuko balira, puntuazio handiena emango zaio prezio baxuena agertzen duenari eta zero baliora jaitziko da modu linealean, lizitazioaren prezioarekin bat etorriko dena.

Horretarako, formula hau aplikatuko da: $P = 50 \cdot (M - Ae) / (M - Eb)$

Non:

P = Aztertutako eskaintzak eskuratutako puntuazioa.

M = Lizitazio mota.

Ae = Aztertutako eskaintza.

Eb = Onartutakoen artean eskaintza baxuena.

2) Gutxienezko berme-epa 3 urtetan hobetzea, gehienez beste 2 balioesteko aukeraz (bost urteko bermea).- Gehienezko balioespena 20 puntukoa.

Gutxienezko berme-epa beste urtebetez hobetuz gero, 10 puntu emango dira, gutxienezko urtebeteko berme-epa beste bi urtez hobetzeagatik 20 puntu emango dira.

3) Irizpide sozialak. Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna. Kontratua egikaritzera atxikitako lantaldean kontratu mugagabeak dituzten langileak sartzeko konpromisoa, Gehienez 10 puntu.

Kontratua egikaritzera atxikitako lantaldean kontratu mugagabea duen pertsona bat sartzeko konpromisoagatik puntu bat emango da, muga modura kontratu mugagabeak dituzten 10 langile sartzera balioetsiz, gehienezko puntuazioa 10 puntukoa izanik, eta horrela modu proporzionalean.

Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna balioetsi egingo da. Beraz, dagoeneko enpresakoak diren langileengatik nahiz kontratazioaren xede diren lanak egikaritzera atxikitzen direnengatik, eta kontratazio berriko langileengatik puntuatuko da, betiere, bi kasuetan lizitazioaren xedera atxikitako langileen kontratua mugagabea bada.

4) Ingurumen-irizpideak, 10 puntu.

EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo horien baliokidea den beste mota bateko (egiazta daitekeena) ingurumena kudeatzeko sistema bat duten enpresa lizitatzailleek 10 puntu emango zaizkie.

Uneko datan indarrean den ingurumena kudeatzeko sistema hori edukitzearen egiaztagiria aurkeztu behar da.

Enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemarik txertatuta EZ duten enpresa lizitatzailleek aukera izango dute horiek (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokideak) enpresa hornitzaileetan eta obran erabiltzeko materialen (hodiak, kutxatilik, hormigoiak, asfalto-hormigoia, etab.) fabrikatzaileetan txertatuta daudela egiaztatzeko. Horietako bakoitzeko bi puntu emango dira.

5) Egikaritze-epa asteko murriztea.- Gehienez 10 puntuko balioespena.

2,5 puntu emango dira egikaritze-epa murrizten den aste bakoitzeko. Gehienez 10 puntu aplikatuko dira.

Obrak egikaritzeko epearen murrizketak balioetsi egingo dira, betiere, obraren kalitatea bermatuta geratzen baldin bada. Murrizketa hori kontuan izango da soilik eskaintzarekin batera eskainitako epearen bideragarritasuna egiaztatzen duen obraren plangintza bat aurkezten baldin bada.

Berdinketa hausteko irizpideak: SPKL legeko 147.2. artikulua.



N) MODU EZOHIKOAN BAXUAK DIREN ESKAINTZAK

Hasiera batean, desproporzionatu edo ezohiko modura hartuko dira onartutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikotik % 10eko portzentajea baino gehiagoan batez besteko horren azpitik daudenak. Edozein kasutan, behe ezohiko edo desproporzionatutzat joko dira lizitazio motarekiko % 25eko portzentajea baino gehiagoan jaisten diren eskaintza guztiak.

2017ko SPKL legeko 159.4.f) artikulua arabera, puntuazio onena eskuratu duen lizitatuaren eskaintza modu ezohikoan baxua dela uste denean, Mahaiak, alde aurretik, hala badagokio, pleguko betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuta, eta puntuazio onena duen hautagaiaren alde esleipenaren proposamena egin aurretik, 2017ko SPKL legeko 149. artikuluan aurreikusten den prozedura izapidetu beharko du, non dagokion zerbitzuaren teknikariaren aholkularitza eskatuko den, nahiz eta lizitatuak bere eskaintza justifikatzeko gehienezko epea ezingo da 5 egun baliodun baino handiagoa izan dagokion jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita.

Edozein kasutan, kontratazio-organoek ukatu egingo dituzte eskaintzak baldin eta azpikontratazioari buruzko araudia urratzeagatik edo ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarri diren betebeharrak, nazionalak zein nazioartekoak, betetzen ez dituztelako modu ezohikoan baxuak direla egiaztatzen badute, indarreko sektoreetako hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

Edozein kasutan, justifikazioak lizitatuak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua ez duela behar bezala azaltzen ulertuko da hura osagabea denean edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik egokiak ez diren hipotesi edo jardunetan oinarritzen bada.

O) BERMEAK

BEHIN BETIKO BERMEA % 5 eskaintako azken prezioaren edo lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren gainean (BEZ aparte).

BERME OSAGARRIA: % 5 esleipenaren zenbatekoaren gainean, behe ausartegia denean. Behin lizitazioaren xede diren obrak amaitu, harrera egin eta horien azken ziurtagiria onartuta, berme osagarria itzuli egingo zaio kontratistari.

P) ESLEIPENA EGITEKO GEHIENEZKO EPEA ETA ENPRESA LIZITATZAILEAK BEREN PROPOSAMENETARA LOTZEKOA.

BI HILABETE gutun-azala edo artxibo elektronikoa irekitzeko lehen egintzaren ondorik. Epeak 15 egunez areagotuko dira SPKL legeko 149. artikuluko izapideak jarraitzea beharrezkoa denean (SPKL legeko 158. artikulua).

Q) KONTRATUA EGITEARI UKO EGIN EDO IZAPIDETUTAKO PROZEDURAN ATZERA EGITEN BADA KONPENTSATZEKO MODUA

Lizitazioan parte har dezaketen hautagaiak edo lizitatuak konpentsatuko dira administrazio prozedura erkidearen bidez Administrazioaren ondare erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balioespen-irizpideekin bat etorritik egin izan dituzten gastuengatik.

R) ESKATZEN DIREN ASEGURU-KONTRATUAK

Derrigorrez aseguruaz gain, kontratistak Eraikuntzako Arrisku Orotako Poliza sinatu beharko du, estaldura honekin:

- Obretan eraikuntza eta bermearen epealdian zehar izan daitezkeen kalteak, eta esleipen-zenbatekoaren mugara arte, ohiko arriskuetatik (sutea, tximista, leherketa, inpaktua, ekintza bandalikoak eta asmo txarrekoak, etab.), naturako arriskuetatik, nahiz greba, matxinada, sabotaje, kommozio zibil eta terrorismotik eratorritakoak.



- Erantzukizun zibil orokorra, patronal eta gurutzatua, obran esku-hartzen duen langile guztiak aseguratzea, eta hirugarren pertsonen eragindako kalteak estaltzekoak, baita haren langile, enplegatu eta mendeko iraunkor edo aldi baterakoek egindako ekintzen ondoriozkoak, haren makineria eta ekipamenduak eragindakoak eta esleipenaren xede diren obrak egikaritzean egindako lanen ondoriozkoak.

Bermearen muga kontratuen aurrekontuaren % 75ekoa izango da.

Mantenu-epea urtebetekoa izango da gutxienez, obran harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

Kontratua egikaritzen den bitartean obran amaiera-datan atzerapen bat gertatuko balitz aurreikusitako datarekin alderatuz, edo proiektuaren edukian aldaketaren bat egon balitz, enpresa kontratistak aipatu epealdi gehigarriko epealdi horri dagozkion polizak kontratatu edota luzatu beharko ditu eta aldatzen diren ezaugarriak kontuan izanik, eta horiek ordaindu izana egiaztatzen primaren ordainagiria igorri beharko du.

S) EGIKARITZE- EDOTA ENTREGA-EPEA. EPE PARTZIALAK. LUZAPENAK.

Egikaritze- edota entrega-epea: SEI HILABETE Zuinketa Egiaztatzen Aktaren egunetik hasita.

T) ENTREGA EDOTA AURKEZTEKO LEKUA (hala badagokio).

Artziniega.

U) ZEHAPENEN ZENBATEKOA.

Kontratuaren xedea modu traketsan betetzen bada, kontratua egikaritzera horretarako behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak atxikitzen konpromisoa betetzen ez bada, edo 2017ko SPKL legeko 2. atalarieta SPKL legeko 202. artikuluko 1. atalari jarraiki ezarritako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, zehapenak ipiniko dira.

Kontratistak, hari egotz dakizkion arrazoien ondorioz, kontratuaren egikaritzea partzialki bete ez balu, Tokiko Erakundeak aukera izango du, kasuaren inguruabarretan erreparatuta, kontratua eteteko edo zehapenak ipintzeko, nahieran. Arau orokor modura, haren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1ekoa izango da, baldin eta, hala arrazoituta, kontratazio-organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela irizten ez bada, kasu horretan % 5eko edo % 10eko portzentajera irits daiteke, hurrenez hurren. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartu ahalko da larritasuna balioesteko.

Kontratista kontratua hura egikaritzeko ezarritako guztizko epearen barnean bete behar du ezinbestean, eta egikaritze jarraituetarako adierazitako epe partzialak ere bete egin beharko ditu. Kontratista berandutzen bada ez da beharrezkoa izango Administrazioaren aldetik aurrez aurretik inolako intimidaziorik eragitea.

Kontratista, hari egotz dakizkion arrazoien ondorioz, guztizko epea betetzeari dagokionez berandu ibili baldin bada, Tokiko Erakundeak aukera izango du, kasuari dagozkion inguruabarrak erreparatuta, kontratua eteteko edo eguneroko zehapenak ipintzeko, proportzio honetan: kontratuko prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euro, BEZ aparte.

Ez-betetzea partziala izan bada edo egikaritzea modu traketsan bete baldin bada, eta zehapenik aurreikusita ez baldin badago edo zehapenak aurreikusita egon arren Tokiko Erakundeak sorrazarazitako kalteak estaliko ez balira, aipatu erakundeak kalte eta galerengatik kalte-ordaina eskatu ahalko dio.

Zehapenak kontratazio-organoaren akordioz ipiniko dira, kontratuko arduradunak hala proposatuta, baldin eta hura izendatu izan balitz. Akordio hori berehala betetzeko izango da, eta kontratistari, ordainketa oso edo partzial kontzeptuan, ordaintzeko zenbatekoetatik kenduz edo, hala badagokio, eta aipatu ordainketetatik kendu egin denean, eratu izan den bermetik kenduz, gauzatuko da.



V) ORDAINTZEKO MODUA.

Artziniegako Udalak onartutako hileroko ziurtagiriak, eta egindako lanei dagokion faktura igorrita.

W) KONTURAKO ORDAINKETAK.

Dagokion ala ez BAI

Kontura ordaintzekoak diren eragiketak.

Enpresa kontratistak egindako prestaketa-eragiketen ondorioz kontura ordainketa jasotzeko eskubidea izango du, esate baterako, obrara atxikitako material edo makineria-ekipamendu astunen instalazio edo metaketa, Obrako Zuzendariaren iritziz jaso daitezkeenak. Metatutako materialak Prezioen Koadroan agertzen den obran bertako prezioaren % 60ko portzentajearen ordainduko dira, kontu onerako ordainketa kontzeptuan. Ordaindutako material metatuak jabetzarenak izango dira, eta ezingo ditu kontratistak erabili beste xede batzuekin, eta kontratistak gorde beharko ditu, hura izango delarik horietan izaten diren kalte edo gabezien arduradun, kasu horretan konpondu edo ordeztu egin beharko direlarik.

SPKL legeko 198.3. eta 240. artikuluetan eta HAKLEO erregelamenduko 155., 156. eta 157. artikuluetan zehazten den moduan, eta KAOP pleguko 54tik 58. bitarteko klausulekin bat etorriz.

X) KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Mota sozialekoak.

Kontratuaren egikaritzean enpresak, kontratistak edo azpikontratistak emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko dute, tratuan, enplegurako sarbidean, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, eteteen, ordainsarrietan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, iraupenean eta lanaldiaren antolaketan.

Prebentzio planaren arabera zuzendaritzarekin lotutako zereginak betetzen dituzten eta beren jarduera eta erabakietan laneko arriskuen prebentzioa txertatzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso duten langileak izan beharko ditu.

Desgaitutako pertsonen eskubideari eta horiek gizarteratzeari (azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretua), emakume eta gizonen berdintasunari eta laneko arriskuen prebentzioari (azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/97 Errege Dekretua) dagokienez indarrean diren araudiak bete beharko ditu derrigorrez.

Langileen subrogazioa
Bestelakoak.

Ez

1.- Kontratista esleipendunak obrako kartel bat egin, hornitu eta ipini beharko du, bere kontura eta ikusteko moduko leku batean. Bertan obra horren ezaugarriak adierazi beharko dira, eta haren diseinua eta materialak Arabako Foru Aldundi Txit Gorenak kartelei dagokienez duen eremuan zehaztutako modukoak izan beharko dira. Obra egikaritzen den bitartean eta hura amaitu eta sei hilabete igaro arte ikusteko moduko leku batean ipini beharko da.

Halaber, edozein unetan Arabako Foru Aldundiko teknikarien bisita baimendu beharko da.

2.- Obrak egikaritzen diren bitartean argibide hauek errespetatu beharko dira:

- Kontratista, obrak hasten dituenean, hiri zerbitzuak, energia, telefonia edota gasa hornitzen dituzten enpresetako ingeniartzako zerbitzuekin jarri beharko da harremanetan, aipatu zerbitzuen kokapena zein den jakiteko.

- Bide azpiegitura eta mugikortasuneko Zuzendariaren baimeneko baldintzak errespetatu beharko dira (309 zenbakidun Ebazpena, 2019ko otsailaren 6koa), besteak beste, obrak partzela barnean egiteko trafikoan eragin gabe, eta A-2124 errepideko galtzadan eta bide-bazterretan objektuak utzi gabe, eta obra behar bezala seinaleztatuz.

- Kontratistak obran erabiltzeko materialak pilatzeko puntuak finkatuko ditu, perimetroan itxitura modura behar bezala antolatu eta hesituta.



- Proiektuan obra sei hilabeteko epean, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik zenbatzen hasita, erabat amaituta eta harrera egiteko moduan egon beharko dela adierazten bada ere, esleipendun suertatzen den lizitatzailleak eskaintzan adierazitakoa izango da kontuan izateko epea.

3.- Baldintzen pleguan edota planoetan aurreikusitakoa egikaritu beharko da, bietan egongo balitz bezala. Kontraesanik balego, pleguan adierazitakoa lehenetsiko da.

4.- Eteteagatik edo beste arrazoen batengatik, amaitu gabeko obrak ordaindu beharko balira, Obrako Zuzendariak balioetsiko ditu obrako unitate ezberdinen balio deskonposatuen arabera. Kontratistak pilatuta dituen materialak prestatu beharko ditu Obrako Zuzendaritzak zehaztutako epean horien harrera egiteko, pilaketetarako hitzartutakoari dagokionez prezioak aski ez izatearen ondorioz erreklamaziorako eskubide bat ordainduz.

5.- Prezioen arteko kontraesanak: Aurrekontuan kontsignatu gabeko obrako unitateetarako prezio bat finkatzea beharrezkoa balitz, Obrako Zuzendariaren eta kontratistaren artean egingo da, kontratazioaren araudia betez. Prezioak aplikatu behar diren obrak egikaritu aurretik finkatu beharko dira eta, edozein arrazoi dela medio horiek egikaritu izan balira, kontratistak Obrako Zuzendaritzak adierazitako prezioa onartu beharko du derrigorrez. Prezio horiek finkatzeko modu bat zein bestea, kontrataren areagotze-portzentajeei, esleipenaren beherapenari eta dagokion BEZ zergari lotuak egingo dira.

6.- Gorako partidak: Kontratistari likidatzekoak izango dira soilik, gorako partiden kontura, Proiektuaren arabera eta Obrako Zuzendariaren agindupean gauzatzen diren obrak. Horiek unitatearen arabera ordainduko dira Proiektu prezioetan ezarritakoarekin bat etorritz edo, bestela, Pleguaren eta kontrataziorako araudiarekin bat etorritz modu kontrajarrian finkatzen direnen arabera.

7.- Kontratistak baldintzen Pleguko kopia oso bat, proiektuko plano guztiak, nahiz kontratistak garatutako edo Obrako Zuzendaritzak emandako berrikusitako plano guztien kopiak izango ditu, horiekin batera gainera daitezkeen argibide eta zehaztapen osagarriekin batera.

Behin obrak amaituta eta eguneratutako artxibo honen ondorioz, Kontratistak "As Built" Planoen edo Egiaz Egikaritutako Obraren Planoen bilduma bat aurkeztu beharko du ezinbestean, horren ondoriozko gastuak bere kontura izanik. Plano horiek CAD eta GIS formatuan sortuko dira, Arabako foru Aldundiko kodetze-estandarren arabera (GML).

8.- Kontratak ingurumena, giza bizitza eta besteen jabetza babesteko eta kontratu honen xede diren jardueren ondoriozko kutsadura prebenitzeko beharrezkoak diren zuhurtzia-neurriak hartu beharko ditu. Horren ondorioz, beregain hartuko ditu ingurumena, osasuna, laneko segurtasuna eta osasuna edo segurtasuna kudeatzeko kostuak eta kontratazio honen arabera bere jardueretatik eratorzen diren gainerako kostuak.

9.- Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denean hasiko da egikaritzen.

Kontratua formalizatu eta gehienez 15 egun naturaleko epean, zuinketa egiaztatu eta dagokion akta jaso beharko da.

10.- Kontratuko funtsezko klausulatzat hartuko dira baldintza teknikoen pleguan ezarritako baldintzak. Klausula horiek edo kontratua egikaritzeko funtsezko baldintza gisa aldeztu aurretik aipatzen direnak betetzen ez badira, kontratua eten egingo da, esku-hartzea isolatua eta berriro bidera daitekeela irizten ez bada, eta hura etetea interes publikoari begira komenigarria ez dela uste bada. Kasu horretan, dagozkion zehapena ipiniko da horren ordean.

Y) AZPIKONTRATAZIOA.

Azpikontratazioaren gehienezko portzentajea: % 60

Enpresa lizitatzailleak azpikontratatzea aurreikusten duen kontratuaren zatia eskaintzan adierazteko duen betebeharra Bai

Z) ALDAKETAK.



Kontratua aldatzeko aukera.

Aldaketan baldintzak, irismena eta muga: (aldaketa gerta dadin eman behar den gertakizun objektiboaren egoera, kontratuko zein elementuri eragingo dion, prezio berriak zehazteko jarraituko diren izapide-arauak, epe berriak ezartzeko prozedura...).

Administrazioak aukera izango du kontratua interes publikoko arrazoiaren ondorioz aldatzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 205. artikuluan aurreikusten diren inguruabarretakoren bat ematen denean, betiere horrekin lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Aurrez aipatutako balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aipatu Legeko 242.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratuan egiten diren aldaketek bertan sartzen ez diren obrako unitate berriak sartzea ekartzen dutenean, aldaketa horien prezioak Administrazioak finkatuko ditu eta kontratistak onartzen ez baldin baditu, kontratazio-organoak aukera izango du horiek beste enpresa batekin kontratatzeko finkatutako prezio beretan edo zuzenean egikari ditzake.

Kontratuko prezioan gehienez % 20 portzentajearen eragin dezake (B.E.Z. gabe).

AA) PRESTAZIOAREN HARRERA EGITEKO EPEA.

HILABETE BAT entrega egiten denetik edo kontratuaren xedea egiten denetik.

AB) BERME-EPEA.

Ureztatze kanpaina batean eta baldintza klimatologiko ezberdinetan obrako osagai ezberdinen portaeran behatze aldera, gutxienez HIRU URTEKO berme-epe bat finkatzen da, obraren harrera egiten denetik zenbatzen hasita, eta enpresa eraikitzailearen ardura izango da epe horretan zehar hura zaindu, mantendu eta konpontzea.

Berme-epe hori areagotu egingo da lizitatuzaileak eskaintzan adierazitakoarekin, baldin eta kontratua hari esleitzen bazaio.

AC) LAN-PROGRAMA.

Lan-programa EZ

OHARRAK

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ UDAL IGERILEKUAK EGOKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA.

- I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.....**
- 1.- KONTRATUAREN XEDEA, ARAUDI APLIKAGARRIAK ETA ESLEITZEKO MODUA.....
- 2.- KONTRATUAREN OINARRIZKO BALIOA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
ETA LIZITAZIO MOTA. GEHIENEZKO AURREKONTUA
ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITU ERABILGARRIA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....
- 3.- PREZIOEN BERRIKUSPENA.....
- 4.- PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA
- II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIOA ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA**
- 5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.....
- 6.- ESKAINTZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK



- 7.- LIZITAZIORA ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.....
8.- DOKUMENTAZIOAREN SAILKAPENA.....

III.- ESLEIPENA.....

- 9.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA
ESLEIPENDUN MODURA PROPOSATUTAKO
ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.....
10.- BEHIN BETIKO BERMEA.....
11.- ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA

IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.....

- 12.- KONTRATUA FORMALIZATU AURRETIKO BETEBEHARRAK.....
13.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

V.- KONTRATUA EGIKARITZEA.....

- 14.- KONTRATUA EGIKARITZEA

VI.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA....

- 15.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA

ERANSKINAK.....

- I. ERANSKINA PROPOSAMEN-EREDUA. ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN
IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.....

- II. ERANSKINA BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA ETA
EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK BETETZEAREN.....

- III. ERANSKINA ENPRESAK HELARAZITAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL MODURA
DEKLARATZEA

- IV. ERANSKINA ADIERAZPEN ARDURATSUA. AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN
DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

- V. ERANSKINA ENPRESA-TALDE BATEKO KIDE IZATEARI BURUZKO ADIERAZPENA

- VI. ERANSKINA ATZERRIKO ENPRESEN DOKUMENTAZIOA.....

- VII. ERANSKINA ENPRESA LIZITATZAILEAK
ESLEIPEN-PROPOSAMENAREN GAINEAN
AURKEZTEKO ADIERAZPEN ARDURATSUAK

- VIII. ERANSKINA ABALAREN EREDUA.....

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA, ARAUDI APLIKAGARRIAK ETA ESLEITZEKO MODUA.

- 1.1.- Kontratu honen xedea izango da Artziniegako Udala igerilekuak egokitzea, indarreko araudira egoki daitezen eta, aldi berean, egungo arazketa- eta iragazketa-sistemak berritzea.



Modu horretan, premia hauek erantzungo die:

- 1) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Arabako Lurraldean duen Delegazioaren betekizun ezberdinak betetzea, arazketa-sistema indarreko araudian (Osasun Sailaren otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua, erabilera kolektiboko igerilekuen osasun erregelamendua onartzekoa eta 742/2013 Errege Dekretua) adierazitako eskakizunetara egokitzeko premiari buruz.
- 2) Instalazioak Hiri ingurune, espazio publiko, eraikin eta informazio nahiz komunikazio sistemetarako irisgarritasun-baldintzak onartzeko Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretura egokitzea, eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Erabilera eta Irisgarritasunean Segurtasunari dagokiona betetzea.

1.2.- Obra idatzitako obra-proiektuaren arabera egikaritzeko da, Memoria barne, oinarrizko materialen edo obrako unitateko parte diren elementuen deskribapenari dagokion guztian. Ondorio guztietarako, Obra-proiektuak, Klausula Administratibo Berezien Plegu honekin eta Baldintza Teknikoen Pleguarekin eta Eranskinekin batera, kontratuzko dokumentu izaera izango dute, eta halakotzat, aldean eskubide eta betebeharrak arauko dituzte eta enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu adostasun froga modura kontratua formalizatzeko egintzan.

1.3.- Kontratazioa Plegu honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu Juridikora eramateko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL), Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan, eta Estatu mailan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzeko beste edozein xedapenetan, hartako esparruan aplikagarri badira, ezarritakoarekin bat etorri arautuko da.

1.4.- Kontratua SPKL legeko 159. artikuluan aurreikusten den prozedura ireki bidez esleitu da, eta HAKLEO erregelamenduari dagozkion artikuluei jarraiki, edo hura ordeztuko arauzko xedapenei jarraiki.

1.5.- CPV kodea: 45212212-5 Igerilekuak eraikitze lanak.

1.6.- Egikaritzearen lekua (NUTS kodea): ES211

2.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA GEHIENEZKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK KREDITU ERABILGARRIA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

2.1.- Kontratuaren balio estimatua eta lizitazioaren oinarria 327.661,07 euroko zenbatekora iristen dira, BEZ aparte, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa 396.469,89 eurokoa da (BEZ barne).

2.2.- Kreditu erabilgarria.

Badago kontratu hau betetzetik Administrazioarako eratorzen diren betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko beharrezko kreditua.

2.3.- Kontratuaren prezioa.

Kontratuaren prezioa hura esleitzearen ondoriozkoa izango da eta ezingo da Administrazioak egindako lizitazio mota gainditu.



Ondorio guztietarako kontratuaren prezioan enpresa kontratistak kontratatutako obra modu normalean egikaritzeko egin behar dituen gastu guztiak, zuzenak eta zeharkakoak, obren ikuskapen eta zuzendaritzako lanketak egiteko tasak eta indarreko xedapenen arabera aplikagarri diren beste edozein tasa, eta orotariko zerga eta lizentziak, udal mailakoak, probintziakoak nahiz estatukoak, sartzen direla ulertzen da.

3.- PREZIOEN BERRIKUSPENA.

3.1.- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturan egikariturako da.

3.2.- Prezioak ez dira berrikusiko. Inguruabar hori ez da aldatuko egikaritzearen epea luzatzearen ondorioz, betiere, hura Administrazioari egotz dakiokkeen arrazoiaren ondorio ez bada edo ezinbesteko kasu bat ez bada, halakotzat ulertuta SPKL legeko 239. artikuluan ezarritakoak.

4.- PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA.

Klausula Administratibo Berezien Plegua, Baldintza Teknikoen Plegua eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri izango dira Kontratatzailearen Profilean proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean.

Proposamenak aurkeztu aurretik, enpresa interesdunek aukera izango dute Ezaugarrien Koadroko E) atalean aipatzen den Administrazioaren Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, lizitazio honetan ematen diren inguruabar espezifikoak jorratzeko. Enpresa interesdunak pleguei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen baldin bada, denbora baliodunean, SPKL legeko 138. artikuluan eta HAKLEO erregelamenduko 78. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Pleguei eta dokumentazio osagarriari buruz eskatzen den informazioa, beranduenera, eskaintzak aurkezteko finkatutako muga-eguna baino sei egun lehenago helarazi beharko da, betiere, eskaera gutxienez hamabi egun aurretik eskatu baldin bada.

Eskatzen dena Klausula Administratibo Partikularrean, Obra-proiektuan edo gainerako dokumentazioan jasotzen denaren gainerako azalpenak baldin badira, erantzunek izaera loteslea izango dute eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Kontratzeko espedienteari buruzko informazio oro, nahiz Administrazioaren kontratzeko jarduerari buruzko beste edozein datu eta informazioa Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, SPKL legeko 63. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Kontratatzailearen Profileran modu publikoan sartzeko Ezaugarrien Koadroko aipatu E) atalean adierazten den Administrazioaren atari instituzionala baliatu beharko da.

II. – ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIOA ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

5. – ENPRESA LIZITATZAILEAK.

5.1.- Kontratuaren xede den lizitazioan eskaintzak aurkezteko aukera izango dute jarduteko ahalmen osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerriarrek, baldin eta SPKL legeko 71. artikuluan kontratatzeari dagokionez ezartzen diren debekuetako batean ez badaude, eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta tekniko eta profesionala egiaztatzen badute edo, SPKL legean hala eskatzen den kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude.



Era berean, enpresek, hala badagokio, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa burutzeko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo profesionala izan beharko dute, Ezaugarrien Koadroko F) atalean zehazten dena.

Pertsona juridikoez lizitazioan parte hartu ahalko dute soilik kontratuaren prestazioak, beren estatutu edo sorrerako arauen arabera, berezkoak zaizkien xede, helburu edo jardueraren eremuaren barnean sartzen baldin badira.

Kontratua gauzatzeko beharrezkoa den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartekoetan oinarritu ahalko da, horiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein delarik ere, betiere, kontratua egikaritzen den bitartean, kaudimen eta bitarteko horiek egiaz izango dituela eta aipatu erakundeak, SPKL legeko 75. artikulua arabera, kontratatzeko debekurik ez duela frogatzen baldin badu.

Era berean, horretarako aldi baterako eratzten diren enpresen aldi baterako elkarketek proposamenak aurkeztu ahalko dituzte, SPKL legeko 69. artikuluaekin bat etorritik. Elkarte hori osatzen duen enpresa bakoitzak, jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatu beharko du. Horretarako, hurrengo klausuletan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta dokumentu pribatutan sinatzen duten enpresen izen eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta kontratuak irauten duen bitartean Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango duen pertsona edo erakunde adierazi beharko dira, esleipendun izanez gero Enpresen Aldi Baterako Elkarte modura formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adieraziz. Dokumentu hori Elkarte osatzen duen enpresa bakoitzeko ordezkari sinatu beharko dute.

5.2.- Parte hartzeko eskaera eta, proposamena aurkezteak, berekin dakar:

- a) Plegu honetako, Obra-proiektuko eta kontratuzko gainerako dokumentuetako klausulak baldintzarik gabe onartzea, osotasunean, eta inolako salbuespen eta aitzakiarik gabe.*
- b) Aurkeztutako datu guztien zehaztasunari dagokion adierazpen arduratsua eta kontratazioaren xede diren prestazioak kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela adieraztekoa.*
- c) Kontratazio-mahai eta -organoari Sektore Publikoko Lizitzaile eta Enpresen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu Kide baten operadoreen ekonomikoaren zerrenda ofizialean jasotzen diren datuak kontsultatzeko baimena ematea.*

Era berean, enpresa lizitzaileak, zuzeneko bisita eginez edota bestelako bitarteko osagarri batzuekin lurrak ezagutu dituela eta alderdi fisikoari dagozkion lur horiek garraioari, instalazioei eta urak kanporatzeko eskatzen diren zerbitzuekin eta obrak egiteko dauden gainerako premiekin lotuta, dituzten aukeren gaineko ezagutza duela ulertzen da. Ezaugarrien Koadroko aipatu E) atalean azaltzen den Zerbitzuak, eskaintzak aurkezteko epean zehar, hala eskatzen duen edozein enpresa interesdunari, kokapena eta dokumentazioari nahiz aplikagarri den araudiari buruzko informazioa helaraziko dio. Horrenbestez, lurra, obrako inguruabarrak, edota kontratuko edozein baldintza, hartako parte diren dokumentu atxikietako baldintzak edo aplikagarri diren legeria edo arauetako baldintzak ez ezagutzearen alegazioak ez du enpresa kontratista horiek betetzetik salbuetsiko.

Ezingo dute prozedura honetan parte hartu, zuzenean edo zeharka haietara lotutako enpresen bidez, hala badagokio, kontratuko zehaztapen teknikoak edo hura prestatzeko dokumentuak eratzten parte hartu duten enpresak edo kontratazio honen prozedura prestatzen zen bitartean kontratazio-organoari aholku ematen aritu direnak, betiere, parte-hartze horrek lehia faltsutzea ekar badezake edo tratu pribilegiatua badakar gainerako enpresa lizitzaileekiko.



Enpresa lizitatuak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du. Gainera, bakarka proposamena helarazi badu, ezingo du beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik aurkeztu. Araua horiek haustek berekin ekarriko du automatikoki berak aurkeztutako proposamen guztiak ez onartzea.

Ez da aldaketarik eskaintzeko aukera aurreikusten, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 142. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

6.- LIZITAZIORA ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

6.1.- Lizitazio eta kontratazio elektronikoko sistemak aukera ematen du parte hartzeko proposamen eta eskaerak aurkezteko, dokumentuak igorri eta jasotzeko eta kontratuak sinatzeko, eta eskuragarri dago Administrazioaren atari instituzionalean, Ezaugarrien Koadroko aipatu E) atalean adierazten dena.

6.2.- Parte hartzeko proposamen eta eskaerak lizitazio eta kontratazioarako sistema elektronikoko horien bidez aurkeztuko dira, eta Ezaugarrien Koadroko I) atalean adierazten den epeko azken egunera arte egin ahalko dira. Epeko azken eguna balioduna izango ez balitz, hurrengo lehen egun baliodunera luzatzen dela ulertuko da.

6.3.- SPKL legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazten diren egoeren arteko bat betetzeagatik, parte hartzeko proposamen eta eskaerak aurkezteko bitarteko elektronikoko erabiltzea derrigorrezkoa izango ez balitz, dokumentazioa Administrazio kontratatzailearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da, Ezaugarrien Koadroko H) atalean adierazten den helbidean kokatzen dena, edo postaz igorri ahalko da, eta Ezaugarrien Koadroko I) atalean adierazten den epeko azken eguneko 14:30ak arte egin ahalko da hori (azken eguna jendearan arretarako ordutegi berezikoa balitz, Erregistro Orokorrean aurkezpena 12:30ak arte egin ahalko da). Epeko azken eguna balioduna izango ez balitz, hurrengo lehen egun baliodunera luzatzen dela ulertuko da.

6.4.- Enpresa lizitatuak gutun-azal bakarra (artxibo elektronikoa) aurkeztu beharko du, ondoren zehazten den dokumentazioarekin, zera adieraziz:

- a.- Artziniegako udal igerilekuak egokitzeko lizitazioan parte hartzen duela.*
- b.- Enpresaren izena.*

c.-Proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin sinatzen duen, hori guztiori irakurtzeko moduan.

6.5.- Gutun-azala enpresa lizitatuak ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko du ezinbestean.

6.6.- Proposamena Enpresen Aldi Baterako Elkarketan eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa ugariren artean egiten baldin bada, horietako bakoitza ordezkatzeko duten pertsonak sinatu beharko dute.

6.7.- Behin proposamen bat aurkeztuta, ezingo da, inolaz ere, atzera eraman, justifikatutako arrazoirik ez balego.

6.8.- Gutun-azalaren edukia: Proposamen ekonomikoa eta formula bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa eta adierazpen arduratsua barneratuko dira, ezaugarrien koadroko J atalean adierazten diren hurrengo betekizunak betez.



6.9.- *Administrazioak aukera izango du, kontratua esleitu aurretik eta ondoren nahiz hura egikaritzen den bitartean, helarazitako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiaztatzeko, hala enpresa esleipendunak kontratatzeko ahalari buruz helarazitako dokumentazioa nola, hala badagokio, egikaritzearen baldintza bereziak egiaztatzeko kontsignatuak, enpresak aurkeztutako datu eta inguruabarren faltsutzea kontratua baliogabetzeko arrazoi izan daitekeela ulertuta, hala badagokio, enpresa kontratistari egotz dakioken ez-betetzeagatik, eraturako behin betiko bermea galduz edo, hala badagokio, haren balioa duen kalte-ordainarekin hura eratu ez baldin bada edo hura eratzea eskatzen ez bada zenbateko baliokideaz. Horrez gain, Administrazioari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkion bahitutako bermearen zenbatekotik gora sorrarazitako kalte eta galerengatik.*

7.- DOKUMENTAZIOAREN SAILKAPENA.

7.1.- *KONTRATAZIO-MAHAIA.- Jasotako proposamenak aztertze aldera, Kontratazio Mahaia eratuko da, Ezaugarrien Koadroko K) atalean ezartzen den eran osatua egongo dena.*

7.2.- PROPOSAMENAK AZTERTZEA.

Ezaugarrien Koadroko L) atalean adierazitako lekuan, datan eta orduan, Kontratazio-mahaiak proposamen ekonomikoak eta formula bidez ebalua daitezkeen gainerako irizpideei buruzko dokumentazioa barneratzen duten gutun-azalak, onartutako enpresa lizitatuak aurkeztuak, irekitzeko egintza publikoa gauzatuko du.

7.3.- *PROPOSAMENEN SAILKAPENA.- Proposamenen bat ez baletor bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio mota gaitutako balu, ezarritako ereduak modu nabarian aldatuko balitz, proposamenaren zenbatekoan akats agerikoa erakutsiko balu, edo enpresa lizitatuak onartuko balu bideraezina bilakatzen duen akatsa edo oinarririk eza duela, Kontratazio-mahaiak alboratu egingo du argudiatutako ebazpenean (HAKLEO erregelamenduko 84. artikulua).*

7.4.- *MODU EZOHIKOAN BAXUAK DIREN ESKAINTZAK.- Modu ezohikoan baxuak direla ulertuko da Ezaugarrien Koadroko N) atalean zehazten diren parametroekin bat etorritik identifikatutako kasuetan daudenak. Horiei dagokienez SPKL legeko 149. artikuluan eta HAKLEO erregelamenduko 85. artikuluan xedatzen denari helduko zaio.*

Kontratazio-mahaiak ustez ezohikoak diren eskaintza bat edo gehiago identifikatzen dituzenean, horiek aurkeztu dituzten enpresa lizitatuak deitu beharko ditu, eta 5 egun balioduneko epea emango die dagokion komunikazioa igortzen denetik prezioen, kostuen edo eskaintza ezohikotzat jotzeko oinarri bezala erabili den beste edozein parametroren maila apala modu arrazoituan eta xehetasunez justifikatu eta banaka dezaten, ondorio horietarako egokiak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz.

Kontratazio-mahaiak enpresa lizitatuak epe barruan emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du eta kontratazio-organoari haren onarpena eman edo ukatzeko proposamena igorriko dio argudioak emanez.

Enpresa lizitatuak egindako justifikazioa eta dagozkion txosten teknikoak aintzatetsiz kontratazio-organoak uste balu jasotako informazioak ez duela azaltzen behar bezala enpresa lizitatuak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua eta, horrenbestez, eskaintza ezin dela ontzat eman balio anormalak barneratzeagatik, lizitazioetik kanpo utziko du. Oro har, ustez ezohikoak diren eskaintzak ukatu egingo dira, ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridikotik hipotesi edo jardun desegokietan oinarrituta baldin badaude.

7.5.- *PROPOSAMENAK EBALUATZEA.- Kontratazio-mahaiak proposamenak Plegu honetako Ezaugarrien Koadroko M) atalean garrantziaren eta haztapenaren goitik beherako hurrenkeran jasotzen diren balioespen-irizpideekin ebaluatuko ditu, eta horretarako egokitzat jotzen dituen txosten teknikoak eska ditzake, eta kontratazio-organoari egokitzat jotzen duen proposamena*



luzatuko dio. Aintzatesteko irizpide bakarra prezioarena denean, eskaintza onena prezio baxuena barneratzen duena dela ulertuko da.

Eskaintzak balioesteko irizpideen ikuspegitik bi proposamen edo gehiago abantailatsuen modura berdinduta daudenean, Ezaugarrien Koadroko M) atalean berdinketa hausteko adierazitako irizpideak aplikatzearen ondoriozkoa izango da esleitua, bertan adierazitako hurrenkeran. Halakorik ez balego, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu osteko proposamen ugariaren arteko berdinketa hausteko SPKL legeko 147.2. artikuluan jasotzen diren gizarte-irizpideak aplikatuko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkionak.

III.- ESLEIPENA.

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ESLEIPENDUN MODURA PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.

8.1.- Kontratazio-mahaiak, SPKL legeko 159. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, irekitzeko egintza publikoaren ondotik, saio berean, zera egingo du:

1. Aldez aurretik, hala badagokio, pleguko betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuta, eskaintza ebaluatu eta sailkatzea..

2. Esleipen-proposamena puntuazio onena duen hautagaiaren alde egitea.

3. Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatzen duenak eskaintza egiteko nahikoa ahal duela, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko dituela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela egiaztatzea.

4.- Puntuazio onena eskuratu duen enpresari dei egitea komunikazio elektronikoko bidez behin betiko bermea era dezan, eta 75.2. artikuluan aipatzen den konpromisoa eman dezan eta 76.2. artikuluan aipatzen den bitartekoak egiaz dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezan; eta hori guztiori 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita.

8.2.- Lizitaziora Europar Batasuneko Estatu Kideetako edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatu bateko enpresari atzerritarak aurkeztuko balira, horien ahalmena, kaudimena eta debekurik eza Estatu Kide bateko operadore ekonomiko baimenduen dagokion zerrenda ofizialean dagokion kontsulta eginez egiaztatuko da, edota aipatu alderdiak egiaztatzeko dokumentazioa helaraziz. Azken kasu horretan, behin betiko bermea aurkezteko emandako epearen barruan aurkeztu beharko du.

8.3.- Enpresariak Lizitatzailen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio aurkeztu beharko balu, behin betiko bermea aurkezteko ezarritako 7 egun balioduneko epean helarazi beharko da. Esleipenaren proposamena jasotzen duen enpresa lizitatzailerak, kontratua esleitu aurretik, Klausula Administratibo Berezien Pleguko 9.3. klausulan bere ahalmen eta kaudimenari dagokienez eskatzen diren egiaztagiria dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean.

8.4.- 140. artikuluko 1. ataleko a eta c) bitarteko idatz-zatietan aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzeko dokumentazioari dagokionez, enpresa lizitatzailerako nahiz beren ahala dela eta hautatzen diren beste enpresetarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:



- a) Eskaera berezko izenean edo ahalduen modura aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.
- b) Pertsona juridikoak liratekeen enpresen jarduteko ahalmena. Hori eraketa eta aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatuta, aplikagarri zaion merkataritzako legeriaren arabera betekizun hori eskatu ahal zaionean. Hala izango ez balitz, jarduteko ahalmena eraketa-eskritura edo -dokumentuarekin, estatutuarekin edo sorrera-aktarekin egiaztatuko da. Bertan haren jarduera arautzen duten arauak azalduko dira, hala badagokio, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuta.
- c) Beste pertsona baten izenean bertaritzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonen aldeko nahikoa ahalorde. Enpresa lizitzailea pertsona juridikoa izango balitz, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da. Egintza jakin baterako ahala baldin bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduko 94.1.5. artikulua arabera.
- d) Kaudimen ekonomiko eta finantzario, eta tekniko eta profesionaleko betekizunak justifikatzen dituztenek eta, hala badagokio, enpresa-gaikuntza eta profesionala ere egiaztatzen dutenek, eta plegu honetako 5. klausulan adierazten direnek, Legeko 87. eta 90. artikuluetan ezarritako moduan nahiz gutxienez eska daitekeen sailkapen eta kategoriako multzo edo azpimultzo gisa, betiere, kontratuaren xedea indarrean diren sailkapeneko multzo edo azpimultzoetako baten sailkapen-eremuan sartzen baldin bada, horretarako kontratuaren CPV koderaz joz.

Lizitzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizial batean inskribatuta dauden enpresa lizitzaileak b), c) eta d) ataletan adierazten den dokumentazioa aurkeztetik salbuetsita egongo dira. Salbuespen hori ziurtagiriarekin egiaztatu daitezkeen ahalmen eta kaudimenarekin lotutako inguruabarrak egiaztatzeko dokumentuetara soilik dela hedagarri ulertzen da.

8.5.- Ahalmenari, kaudimenari eta debekuak ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean eman behar dira eta kontratua burutzen den unean ere indarrean egon behar dute.

8.6.- Aldi baterako elkarketa batean sartuta parte hartu nahi duten enpresek aurreko ataletan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute indibidualki.

8.7.- Dokumentu originalak aurkeztu beharko dira edo, bestela, egiazkotasun izaera duten kopia, indarreko legeria betez.

8.8.- SPKL legeko 65-76 bitarteko eta 95. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, dagokion Zerbitzuak eta Kontratazio-mahaiak aukera izango dute enpresaren aldetik zenbait argiketa jasotzeko, esate baterako, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzkoak, edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko eska diezaiekete. Hori bost egun balioduneko epearen barruan egin beharko dute, dagokion eskaera egiten denetik zenbatzen hasita. Atzerriko enpresen kasuan, VI. eranskinean xedatutakoari helduko zaio.

8.9.- Eskaintza abantailatsuena aurkeztu duen lizitzaileari eskatutako dokumentazioa aurkezteko eskaerari horretarako emandako epean erantzun ez baldin bazaio, enpresa lizitzaileak bere eskaintza baztertu egin duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarriaren aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ aparte, zehapen kontzeptuan, eta hurrengo enpresa lizitzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarriki.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA.



9.1.- Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatuzaileak eskainitako azken prezioaren % 5eko gehienezko berme bat eratu beharko du kontratazio-organoak hala eskatuta, Balio Erantsiaren gaineko Zerga aparte. Horrez gain, % 5eko berme osagarri bat eratu beharko du behe arriskutsu kasuan ezaugarrien koadroko o) atalean adierazitakoarekin bat etorritz.

9.2.- Bermea SPKL legeko 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz eratu ahalko da, HAKLEO erregelamenduko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunekin.

9.3.- Behin betiko bermeak SPKL legeko 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die.

9.4.- Bermeak SPKL legeko 111. artikuluan eta HAKLEO erregelamenduko 65. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz itzuli eta ezeztatuko dira.

10.- ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA.

10.1.- Esleipendun modura proposatutako enpresari eskatutako behin betiko bermea eta gainerako dokumentazioa aurkeztu ostean, kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du. Horretarako, esleipendun modura proposatutako enpresa lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epea izango du.

10.2.- Horretarako emandako epean esleipendun modura proposatutako hautagaiak behin betiko bermea aurkeztuko ez balu, puntuazioan hurrengo den hautagaiaren alde egingo da esleipenaren proposamena, aipatu behin betiko bermea eratzeko dagokion epea emanaz.

10.3.- Esleipena argudiatu egin beharko da, bitarteko elektronikoak erabiliz jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatuzaileei eta,aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Jakinarazpen horrek, edozein kasutan, esleipen-prozeduran parte hartzeko interesa duten enpresek esleipenaren erabakiaren aurka behar bezala argudiatutako errekurtsua ipintzea ahalbidetzeko moduko informazioa izan beharko du derrigorrez. Zehazki, alderdi hauek jasoko dira:

a) Baztertuak izan diren enpresa hautagaiei dagokienez, hautagaitza ezesteko arrazoien azalpen laburtua.

b) Esleipen-prozeduratik baztertutako enpresa lizitatuzaileei dagokienez, eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak, kasu horretan ere modu laburtuan, eta enpresa lizitatuzaile ezberdinei emandako balioespenen banakatzea, enpresa esleipendunarena barne.

c) Edozein kasutan, eskaintza onartu zaion enpresa esleipendunaren izena eta bere proposamenean erabakigarriak izan diren ezaugarri eta abantailak adierazi beharko dira, onartutako eskaintzak aurkeztu dituzten gainerako enpresa lizitatuzaileen aurrean lehenesteko arrazoiekin.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean hori formulatzeko epea adieraziko da, SPKL legeko 153.3. artikuluaekin bat etorritz.

10.4.- Aurkeztutako proposamenak, onartutzat jotakoak nahiz ukatuak, ireki gabe edo behin irekita ezetsiak, haien espedienteetan artxibatuko dira. Kontratua esleituta eta errekurtsuak ipintzeko epea igaro ostean halakorik ipini ez denean, proposamenekin gaineratzen den dokumentazioa enpresa interesdunen eskuetan geratuko da.



Enpresa lizitatzailleek urtebeteko epean eskatzen ez badute, dokumentazio hori suntsitu egin ahalko da.

IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURRETIKO BETEBEHARRAK.

11.1.- Esleipenaren jakinarazpenaren agiria hartuta, enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, Ezaugarrien Koadroko R) atalean adierazten diren polizaren kopia eta enpresa esleipendunak kontratatu dituen aseguru-kontratuak kontratatzeke primaren ordainketaren egiaztagiria helarazi beharko ditu, eta bere baitan mantenduko ditu eraikuntza-epean eta berme-epean zehar.

Aseguratutako mugak Administrazioak obra bakoitzean haren berezitasunen, alboko eraikinen, aurretiaz dauden ondareen eta egokitzat jotzen den beste edozein inguruabarren arabera zehazten dituenak izango dira.

11.2.- Kontratua indarrean den bitartean, organo kontratatzaileak aukera izango du enpresa kontratistari eskatzeko aseguru horiei dagozkien dokumentuak erakusteko, edo polizen edo horien ziurtagirien kopiak helaraz ditzala, eta baita primak ordainduta dituela egiaztatu dezala ere. Azken horrek, eskakizun hori bete beharko du derrigorrez. Bestela, organo kontratatzaileak aukera izango du obraren ziurtagirien ordainketa eta obraren harrera egiteko epea baliogabetzeko eta, hala badagokio, berme-epearen zenbaketa hasiera bertan behera uzteko, eta baliogabete-epe hori ez da zenbakarri izango kalte-ordainen ondorioetarako, ez-betetzearen ondorioz egotz dakizkikeen bestelako erantzukizunen kalterik gabe.

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

12.1.- Administrazioak egiten dituen kontratuak lizitazioaren baldintzetara zehaztasun osoz egokitzen den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko dira. Kontratua Aldi Baterako Enpresa Elkarketa bati esleituko balitzaio, horiek 12.2 eta 3 eta hurrengo ataletan aurreikusitako epean egiaztatu beharko dute eskritura publikoan elkarketa hori eratu izana, eta haren iraupena bat etorri beharko da kontratuarekin hura amaitu bitartean, eta gainera Aldi Baterako Enpresa Elkarketari esleitutako IFZ zenbakia aurkeztu beharko dute.

12.2.- Kontratua, beranduenez, esleipena enpresa lizitatzaillei jakinarazi eta hurrengo hamabost egun balioudunetan egin beharko da.

12.3.- Enpresa esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoen ondorioz kontratua adierazitako epearen barnean formalizatu ez bada, Administrazioak lizitazioaren oinarriaren aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko dio, BEZ aparte, zehapen kontzeptuan; hori behin betiko bermearen aurka gauzatu da lehenik eta behin, halakorik eratu izan balu, SPKL legeko 71. artikuluko 2. ataleko b) idatz-zatia ezarritakoaren kalterik gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo enpresa lizitatzaillearen alde esleituko da eskaintzetan sailkatu diren hurrenkerari jarraiki. Aldez aurretik, Plegu honetako 9. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da, aurreko ataletan ezarritako epeak aplikagarri izanik.

12.4.- Ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari kalte-ordainak ordainduko zaizkio berandutzak eragin ditzakeen kalte eta galeren ondorioz.

V.- KONTRATUA EGIKARITZEA.

13.- KONTRATUA EGIKARITZEA.



13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. *Administrazioak obraren Zuzendaritza Fakultatiboaz arduratuko den pertsona bat izendatuko du. Pertsona horren bitartez egingo da obraren ikuskapen. egiaztapen eta zainketa, kontratatutako obra behar bezala burutu dadin.*

Bere eginkizuna betetzeko Zuzendaritza Fakultatiboak pertsona kolaboratzaileak izan ditzake agindupean. Pertsona horiek beren titulu profesionaletatik edo ezagutza espezifikoeetatik, kontratuaren zuzendaritzan sartuko dituztenak, eratorzen diren eskuduntzak beteko dituzte. Kontratazio-organoak izendatutako zuzendaritzaren berri emango dio enpresa kontratistari Administrazioak hamabost egun naturaleko epean kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta zuzendaritza horrek modu berean jardungo du haren langile kolaboratzaileekiko. Aldaketak enpresa kontratistari idatziz jakinaraziko zaizkio.

13.2.- KONTRATUA EGIKARITZEARI DAGOZKION ARAU OROKORRAK.

13.2.1.- Obrak egikaritzea. *Obrak Plegu honetan hitzartutako klausulak zehaztasun osoz betez gauzatuko dira eta Administrazioak onartutako proiektuarekin bat etorri eta, haren interpretazio teknikoaren arabera, obraren Zuzendaritza Fakultatiboak enpresa kontratistari emandako argibideak betez.*

Obretako Zuzendaritza Fakultatiboak enpresa kontratistari ematea egokitzen jotako agindu, argibide eta jakinarazpenak idatziz egingo dira 13.8 e) klausulan aipatzen den Aginduen Liburuan, haren sinadurarekin baimenduz.

Obrak garatzen diren bitartean eta berme-epea betetzen den arte, enpresa kontratista da eraikuntzatik erator daitezkeen akatsen erantzule.

13.2.2.- Lanen eta kalteen ondoriozko erantzukizunak. *Enpresa esleipenduna izango da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen erantzule, eta baita kontratua egikaritzean ez-betetze, errakuntza, metodo desegoki edo ondorio okerraren ondorioz Administraziorako edo hirugarrenentzat sortzen diren ondorioen erantzule ere. Bere kontura izango da hirugarrenei sorrarazitako kalteen ondoriozko kalte-ordaina.*

13.2.3.- Egikaritze-epeak. *Obra egikaritzeko epe orokorra eta, hala badagokio, epe partzialak betetzekoa, Ezaugarrien Koadroko S) atalean finkatzen direnak izango dira.*

Egikaritze-epeak Zuinketa Egiaztatzeko Akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen, enpresa kontratistatik hartan aitzakiarik ipintzen ez bada edo, bestela, kontratistari obraren hasiera baimentzeko egintza formala jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori gaudituko balitz, kontratua eteteko aukera izango da, baldin eta atzerapena Administrazio kontratatzaileaz eta enpresa kontratistaz aparte arrazoien ondorioz gertatu ez bada eta dagokion ebazpen argudiatuan hala adierazten ez bada.

Kontratuzko epea indarreko legeriak eskatzen dituen inguruabar eta betekizunak ematen direnean soilik luzatu ahalko da.

13.3.- ZUINKETA EGIAZTATZEA.

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin batera hasiko da egikaritzen. Horretarako, hura formalizatu eta, beranduenez, hilabeteko epean, obrez arduratzen den Administrazioaren zerbitzuak, kontratista bertan dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, eta horren ondorioz akta bat jasoko da, bi alde interesdunek sinatuko dutena, eta haren ale bat kontratua egin zuen organoari helaraziko zaio.

Obren zuinketa egiaztatzean enpresa esleipenduna edo haren ordezkaria bertan izango dira, SPKL legeko 237. artikularekin eta HAKLEO erregelamenduko 139., 140. eta 141. artikuluekin bat etorri eta horietan aurreikusitako ondorioekin.



Horrenbestez, zuinketa egiaztatzeko akta jaso gabe edo hartan argudiatutzat jotzen diren aitzakiak adierazten direnean ezingo da obra abiatu. Kasu horretan, obren hasiera bertan behera utziko da edo behin betikoz bertan behera uztea erabakiko da.

Zuinketaren egiaztapena justifikatu gabe atzeratzea eta obren hasieran Administrazioaren aldetik lau hilabete baino gehiagoan bertan behera uztea, kontratua eteteko arrazoi izango dira.

Era berean, ezingo da obra abiatu Segurtasun eta Higiene Plana aldeztetik onartu gabe, eraikuntzako lanetako segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/97 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Zuinketa egiaztatzeko akta eta lan-programa, zeinaren edukia ondoren arautzen baita, onartzean ezarri beharreko epe partzialak kontratuko parte direla ulertuko da, horiek eskagarri izatearen ondorioetarako.

13.4.- EZINBESTEKO KASUA. Ezinbesteko kasuan eta, betiere, enpresa kontratistaren aldetik zuhurtziarik gabeko esku-hartzerik egon ez bada, hark kalte-ordainerako eskubidea izango da hari sorrarazi ahal izan zaizkion kalte eta galeren ondorioz.

Ezinbesteko kasutzat hartuko dira SPKL legeko 239. artikuluan ezartzen direnak, eta horiek HAKLEO erregelamenduko 146. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik izapidetuko dira.

13.5.- MODU TRAKETSEAN EGIKARITZEAREN, EZ-BETETZE PARTZIALAREN ETA ATZERATZEAREN ONDORIOZKO ZEHAPENAK.

Enpresa kontratistak kontratuaren xede den prestazioa modu traketsean betetzen baldin badu, edo hari egotz dakizkiokeen arrazoen ondorioz, prestazioaren edo egikaritzeko baldintza bereziki egikaritze partziala betetzen ez bada, zehapenak ipini ahal dira. Horiek ez-betetzearen larritasunaren proportzioarekin bat etorri beharko dira eta ezaugarrien koadroko U) atalean adierazitakoari jarraiki kalkulatu dira.

Enpresa esleipendunak kontratua egikaritzeko epea eta Administrazioak ezarritako epe partzialak bete beharko ditu derrigorrez. Aipatutako edozein epe amaituta, enpresa kontratista berandu ibili baldin bada hari egotz dakizkiokeen arrazoen ondorioz, Administrazioak aukera izango du kontratua eteteko edo zehapen ekonomikoak ipintzeko, nahieran. Edozein kasutan, enpresa kontratista berandu ibiltzearen kasuan ez da beharrezkoa izango Administrazioaren aldetik aldeztetik galdetuz gero egin edo ohartaraztea.

Lanak garatzean berandu ibili baldin bada, SPKL legeko 193.3. artikuluan aurrez ezarritako zehapenak ipiniko dira. Kontratista, hari egotz dakizkion arrazoen ondorioz, guztizko epea betetzeari dagokionez berandu ibili baldin bada, Administrazioak aukera izango du, kasuari dagozkion inguruabarrak erreparatuta, kontratua eteteko edo eguneroko zehapenak ipintzeko, Ezaugarrien Koadroko U) atalean ezarritako zenbatekoekin bat etorritik.

Atzerapena enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoen ondorioz gertatu bada, SPKL legeko 195.2. artikuluan xedatutakoari helduko zaio.

13.6.- KALTE ETA GALERAK. Ez-betetzea partziala izan bada edo egikaritzea modu traketsean edo atzerapenez bete baldin bada, Administrazioari eragindako kalteak estali gabe, hark kalte-ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari kalte eta galeen ondorioz.

13.7.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea izango du, hitzartutako prezioekin bat etorritik, kontratuan ezarritako baldintzen eta hartako aldaketen, halakorik balego, arabera egiaz egindako obrak kobratzeko, Ezaugarrien Koadroko V) atalean aurreikusitako moduan.

Ordainketaren ondorioetarako, Administrazioak hileroko, dagozkion hilearen osteko lehendabiziko hamar egunen barnean, denbora tarte horretan egikaritutako obrari dagozkion ziurtagiriak igorriko ditu. Igorritako ziurtagirien ondorioz enpresa kontratistari egindako ordainketek kontu onerako ordainketa kontzeptua dute, azken neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketei lotuta daude, eta ez dute, inolaz ere, suposatzen barnetatzen dituen obren onarpen edo harrera.



Administrazioak egindako prestazioen kontratuan xedatutakoarekiko adostasuna egiaztatzeko dokumentuak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barnean ordaindu beharko du prezioa, SPKL legeko 210. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, eta atzeratuko balitz, epe hori betetzen ez duenetik aurrera, berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen ondoriozko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzeko abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusten den eran, SPKL legeko 198.4. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

Enpresa kontratistak lanak kontratuzko epeari so obrak egikaritzeko behar dena baino azkarrago gara ditzake, baldin eta obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren iritziz hori desegokitzat jotzeko arrazoirik ez balego. Haatik, ez du eskubiderik izango urtero, egikaritu duenaren edo igorritako ziurtagirien zenbatekoa edozein izanik ere, dagokion urtean adierazitakoa baino zenbateko handiagoa jasotzeko, esleipen-koefizienteari lotuta baitago urtea.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du prestatzeko egindako eragiketen ondorioz (esate baterako, instalazioak eta obrara atxikitako materialen edo makineria-ekipamendu astunen pilaketa) konturako ordainketak jasotzeko, horretarako SPKL legeko 198.3. eta 240. artikuluetan eta HAKLEO erregelamenduko 155., 156. eta 157. artikuluetan zehazten diren moduan eta bermeekin, eta KAOP pleguko 54tik 58ra bitarteko klausulekin bat etorritz.

13.8.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK.

Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebeharrak orokorrean gain, betebeharrak espezifiko hauek egongo dira:

a) **INGURUMEN, GIZARTE ETA LAN ARLOAN.** Enpresa kontratistak derrigorrez bete beharko ditu Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalan eta hitzarmen kolektiboetan ingurumen, gizarte eta lan arloan ezarritako indarreko xedapenak, edo Estaturako lotesleak diren ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenak.

Zehazki:

1.- Garatzeko prestazioak laneko ordenantzari edo hitzarmen kolektiboari lotuta daudenean dagokion laneko ordenantzari edo hitzarmen kolektiboko xedapenak bete beharko ditu.

2.- Enpresak laneko arriskuen prebentziorako beharrezkoak edo derrigorrezkoak liratekeen laneko neurri oro hartuko ditu. Halaber, indarreko araudian ezarritako laneko arriskuen prebentzioko betebeharrak beteko ditu, eta kontratatutako jarduera hasi aurretik betebeharrak hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Kontratutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta prebentziozko jardunaren plangintza.

- Kontratu egikaritzeko erabiliko dituen langileen prebentzio arloko prestakuntza eta informazioa.

- Hala balegokio, beharrezkoak liratekeen, norberaren babeserako ekipamenduak entregatu izanaren agiria.

3.- Enpresak zenbait lan azpikontratatu egingo balitu, aurreko betebeharraren agiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuari Administrazio kontratatzaileari helarazteko. Era berean, enpresek segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari lanak hasi aurretik egindako azpikontratazioen berri eman beharko die.



4.- Lanak egikaritzearen ondorioz langileei gertatutako edozein motako istripu edo galeren kasuan, indarreko araudietan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, Administrazioarako inolako irismenik izan gabe.

5.- Kontratuaren indarrean diren eta lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasun arloan aplikagarri diren xedapen legezko, arauzko eta konbentzionalak betetzeari lotua dago. (Kontratazio publikoan gizarte arloko klausula jakin batzuk sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legea. 5.1. artikulua).

6.- Lizitatuzaileek kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboaren zein den adierazi beharko dute, esleipendun izanez gero. (3/2016 Legea. 5.2. artikulua).

7.- Lizitatuzaileek, behin kontratua esleitura, langileei egiaz aplikatzen zaizkien laneko baldintzei buruz eskatzen den informazio oro helarazteko betebeharra izango dute. (3/2016 Legea. 5.2. artikulua).

8.- Esleipendunak, kontratua egikaritzen den bitartean, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan jasotzen den soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion kategorian profesionalaren arabera, eta ordaintzeko soldata ezingo da, inolaz ere, hura baino baxuagoa izan. (3/2016 Legea. 5.3. artikulua).

9.- Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarritzat jotzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipendunaren ebazpenaren barneratuko da eta kontratatuzailearen profilean argitaratuko da. (3/2016 Legea. 5.4. artikulua).

10.- Esleipendunak Gutun-azal edo artxibo elektronikora atxiki beharko du, plegu honetako I. eranskinean adierazitakoaren arabera, horietan parte hartzen dutenen aldetik lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala emateko berariazko onarpena, horiek amaitu bitartean.

b) EGIKARITZEKO BEHARREZKOAK DIREN GASTUAK.

Enpresa esleipendunak udal baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obretako Udal Lizentzien emakida izan ezik, aldarmioak, ibiak eta hesiak ipini edota lanak gauzatzeko gaitzadak irekitzeko, eta enpresa kontratistaren kontura izango dira erabat horien kudeaketan eta tasen ondoriozko gastuak, eta baita egikaritzearen ondoriozkoak ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira egindako kudeaketak nahiz eskumeneko Organismoetan aurkeztu beharko diren proiektuetako gastu, tasa, ariel, idazketa eta onespeneren ondoriozko ordainketak, funtzionamendurako, sare eta zerbitzueterako lotzeko edota behin-behineko hartuneetarako alta eta baimena eskuratze aldera eta, oro har, instalazioek funtzionamendu egokia eta legezkoa izateko beharrezkoa den guztirako, edozein kasutan, salbuetsita geratzen direlarik behin betiko hartuneak, erakunde kontratatuzailearen kontura izango direnak.

c) SEINALEZTAPEMA. Enpresa kontratistak obrak iragartzeko kartelak ipini beharko ditu derrigorrez, bere kontura. Horrez gain, obraren sarrera adierazteko, lanek hartzen duten zonaldean zirkulazioa adierazteko eta lanen ondorioz arriskutsuak izan daitezkeen guneak adierazteko beharrezkoak diren seinaleak ipini beharko ditu, hala zonalde horretan nahiz horien muga edo inguruetan.

d) AGINDUEN LIBURUA. Enpresa kontratistak Aginduen Liburua obran gorde eta erabilgarri izan beharko du uneoro. Liburu hori obretako Zuzendaritza Fakultatiboaren eta kontratuaren



arduradun den pertsonaren eskura izango da, eta horiek bertan adierazi beharko dituzte obrak garatzen diren bitartean gertatzen eta ematen diren bisitak, gorabeherak eta aginduak. Enpresa kontratistak, bere kabuz edo pertsona delegatu baten bitartez, jarraibide horiei dagokien hartu-agiria sinatu beharko du. Harrera-egintzan Aginduen Liburua behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da, eta aipatu Liburua Administrazioaren eskuetan geratuko da harrera egin ondotik.

e)HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK. Kontratuaren esleipendun den enpresak eta azpikontratatu ahal izan diren enpresek kontratua egikaritzean bi hizkuntzen, euskara eta gaztelaniaren, ofizialkidetasuna errespetatu beharko dute. Hala, beren jarduera elebitasunaren irizpideak errespetatu eta herritarren hizkuntza-betebeharrak ere errespetatu egin beharko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean, Euskadiko Herri administrazioa normalizatzeko prozesuak arautzeko 86/1997 Dekretuan eta Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetan jasotzen diren xedapenekin bat etorritik.

13.9.- EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista esleipendunak legezko betebeharrak betetzeari begira Administrazioak ematen dizkion informazioarekin lotutako eskaerak bete beharko ditu, eta kontratua egikaritzean Ezaugarrien Koadroko X) atalean izaera sozial, etiko, ingurumenekoak dituzten edo beste izaera batekin zehaztu liratekeen baldintza bereziak aplikatuko ditu.

13.10.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA. Kontratua lagatzeari dagokionez, SPKL legeko 214. artikuluan aurreikusitakoari helduko zaio. Kontratua partzialki hirugarrenetik egiteari dagokionez enpresa esleipendunaren kontratazioari begira, SPKL legeko 215. artikuluan ezarritako betekizunak beteko dira, eta enpresa azpikontratistei eta hornidurei egiteko ordainketei begira SPKL legeko 216. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Azpikontratatzeko gehieneko zenbatekoa Ezaugarrien Koadroko Y) atalean ezartzen dena izango da, eta bertan hala adierazten baldin bada, enpresa lizitatzailleek azpikontratatzeari aurreikusten duten kontratuko zatia adierazi beharko dute eskaintzak, zenbatekoa, eta enpresaren izena edo profila adierazita, zati horiek egitea eskatzen zaien enpresa azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoko baldintzak aipatuz definituta. Edozein kasutan, enpresa kontratistak, kontratua esleitu ondotik, eta beranduenez, hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa jakinarazi beharko dio idatziz kontratazio-organoari, azpikontratatu asmo den prestazioaren zatia eta enpresa azpikontratataren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazita, eta enpresa horrek zati hori egikaritzeko duen gaitasuna behar bezala justifikatuz erabilgarri dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideak eta esperientzia aipatuz, eta egiaztatuz ez duela kontratatatzeko inolako debekurik, eta kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan ematen den edozein aldaketaren berri emanez, eta enpresa azpikontratista berrien inguruan beharrezkoa den informazio oro ere emanez.

13.11.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahalko da, Ezaugarrien Koadroko Z) atalean edo SPKL legeko 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta SPKL legeko 207. artikuluan arautzen den prozedurari jarraiki. Halaber, aplikagarri izango dira SPKL legeko 242. artikulua eta HAKLEO erregelamenduko 158-162 bitarteko artikulua.

Kasu horietan, kontratazio-organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, 205. artikuluan jasotako kontratua aldatzeko kasuak izan ezik, izan ere, horiek derrigorrezkoak izango dira soilik, bakarka edo elkarrekin, zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioa % 20 baino gehiagoan aldatzea ez badaukarte, BEZ aparte.

Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren iritziz proiektua aldatzea ezinbestekoa denean, kontratazio-organoaren baimena jasoko du dagokion espedientearen abiatzeko, dagokion proposamen integratua idatziz, hura justifikatu, deskribatu eta balioesteko dokumentuen arabera.



Aldaketa bat izapidetzeko obrak egikaritzea bertan behera uztea, aldi baterako, partzialki edo osorik, beharrezkoa denean, eta horrek kalte larriak badakartza interes publikoari so, kontratazio-organoak aukera izango du obrek behin-behinekoz jarrai dezatela erabakitzeo, Zuzendaritza Fakultatiboak eratzen duen proposamen teknikoan aurreikusita dagoen eran, gehienez aurreikusten den zenbatekoak betiere kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko portzentajea gainditzen ez badu eta finantzatzeko behar adina eta behar beste kreditu baldin badago.

Obren Zuzendaritza Fakultatiboak eta enpresa kontratistak ezingo dute kontratuan barneratzen diren obretan aldaketarik sartu edo gauzatu, kontratazio-organoaren aldetik aldaketa eta haren ondoriozko aurrekontua onartuta ez badaude.

Haatik, alde zurretik onarpen beharrik gabe, aldaketa sartu ahalko dira, proiektuaren neurketetan aurreikusitakoekin alderatuz egiaz egikaritutako unitate kopurua aldatzearekin lotuta daudenean, betiere, gastua kontratuaren jatorrizko prezioaren % 10eko portzentajetik gora areagotzen ez bada.

13.12.- KONTRATUA BALIOGABETZEA. Baliogabetzeari dagokionez SPKL legeko 208. artikuluan eta HAKLEO 103., 170. eta 171. artikuluetan adierazitakoari helduko zaio.

Baliogabetze partzial edo erabatekoa, aldi baterakoa edo behin betikoa, ematen denean, Baliogabetzeko dagokion Akta jasoko da. Akta hori obretako Zuzendaritza Fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatu beharko dute eta bertan baliogabetzea ekarri zuen Administrazioaren akordioa, hori eragin duten inguruabarrak eta kontratua egikaritzeari dagokion izatezko egoera adierazi beharko dira, hark egindako obrako zatia edo zatiak edota osotasuna zehaztasunez adierazita.

Baliogabetzea adostuta, Administrazioak enpresa kontratistari ordainduko dizkio hark jasandako kalte eta galeren ondorioak, SPKL legeko 208.2. artikuluan adierazitako arauak betez.

Kontratua eteteko arrazoia da obrak Administrazioak adostutako zortzi hilabetetik gorako epean bertan behera uztea.

13.13.- OBREN HARRERA. Obren harrera SPKL legeko 210. eta 243. artikuluetan eta HAKLEO erregelamenduko 163. eta hurrengo artikuluetan, nahiz KAOP pleguko 71. eta hurrengo klausuletan adierazitakoarekin bat etorritz egingo da.

13.13.1.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, hark obra erabat egikaritu duenean, hartako baldintzak betez eta Administrazioaren oniritziarekin.

Enpresa kontratistak edo haren delegatuak obretako Zuzendaritza Fakultatiboari idatziz jakinaraziko dio obrak amaitzeko aurreikusitako data, beranduenez berrogeita bost egun baliodun lehenago.

Obren harrera idatzizko jakinarazpena egin ondotik egingo da eta, beranduenez, hura amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, edo Ezaugarrien Koadroko AA) atalean zehazten den epean.

Harrerari dagokion akta jasoko da. Akta hori egintzan parte hartzen duten pertsona guztiek sinatuko dute eta bertan adieraziko da obrak egoera onean ote dauden eta aurreikusitako baldintzen arabera burutu diren. Kasu horretan, obretako Zuzendaritza Fakultatiboak hartutzat emango ditu, eta orduan hasiko da berme-epea.

Obrak harrera egiteko moduan ez daudenean horrela adieraziko da aktan eta horietako Zuzendaritza Fakultatiboak ikusitako akatsak adieraziko ditu eta beharrezkoak diren argibideak zehaztuko ditu, horiek ebazteko epe jakin bat ipiniz. Epe hori igarota enpresa kontratistak ez balitu egin, beste epe bat jarri ahalko da, luzatu ezin dena, edo bestela kontratua etentzat deklaratu daiteke.

Behar bezala argudiatutako interes publikoko arrazoi ezohikoen ondorioz Administrazioak obrak egiaz okupatzea edo publikoki erabiltzeko zerbitzuan ipintzea erabakitzen baldin badu, harrera-egintza formala eginda egon ez arren, inguruabar horiek ematen direnetik obren harrera egiteko egintzari berez dagozkion eragin eta ondorioak gertatuko dira, eta arauz ezartzen den moduan.



13.13.2.- *Harrera egiten denetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epearen barnean kontratazio-organok egikaritutako obren azken ziurtagiria onartu beharko du, enpresa kontratistari ordainduko zaiona kontratuaren likidazioaren kontura.*

13.14.- BERME-EPEA. *Harrera-aktari dagokion egunetik aurrera, Ezaugarrien Koadroko AB) atalean agertzen den berme-epea edo, hala badagokio, esleipendun suertatzen den proposamenean ezarritako epe handiena hasiko da zenbatzen.*

Berme-epean zehar enpresa kontratista izango da obran ager daitezkeen akats edo kalteen erantzule eta, era berean, obra gorde eta kontserbatzeko betebeharra izango du, baldintza teknikoen pleguan aurreikusitakoa eta obretako Zuzendaritza Fakultatiboak ematen dituen argibideak betez, hartan gertatzen diren berezko kalteen erantzule izanik.

13.15.- LIKIDAZIOA. *Berme-epea bete aurreko hamabost egunen barruan obrako Zuzendaritza Fakultatiboak, ofizioz edo, enpresa kontratistak hala eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat idatziko du SPKL legeko 243.3 artikuluan eta HAKLEO erregelamenduko 169. artikuluan adierazten diren ondorioekin, hots:*

- Txostena aldekoa balitz, enpresa kontratista erantzukizun orotatik aparte geratuko da, ezkutuko kalteen gaineko erantzukizuna salbu, eta bermea itzuli edo balio gabetu egingo da, kontratua likidatu egingo da eta, hala badagokio, gauzatzeke dauden betebeharrak ordaindu egingo dira.

- Txostena aldekoa ez balitz eta hautemandako akatsak obrak egikaritzeari dagozkion hutsuneen ondorio balira eta ez berme-epean zehar eraikitakoaren erabileraren ondorio, Zuzendaritza Fakultatiboak dagozkion argibideak emango dizkio enpresa kontratistari eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Horretarako epe jakin bat emango dio eta epe horretan zehar obrak zaintzeaz arduratzen jarraituko du, berme-epea areagotzeagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Haatik, obra berme-epea igaro ondoren hondatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz, enpresa kontratistak kontratua ez betetzeagatik, hura izango da kalte eta galeren erantzule hamabost urtean zehar obraren harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

13.16.- KONTRATUA ETETEA. *Kontratua SPKL legeko 211. eta 245. artikuluetan adierazten diren kasuetan etengo da, eta kontratazio-organok adostuzko du, ofizioz edo enpresa kontratistak hala adierazita, haren entzunaldia bermatzen duen prozedura bidez eta SPKL legeko 212., 213. eta 246. artikuluetan eta HAKLEO erregelamenduko 110-113 bitarteko eta 172. artikuluetan aurreikusten diren ondorioekin.*

Ezaugarrien Koadroko U) atalean ez-betetzeagatik zehapenak ipini ez baldin badira, Ezaugarrien Koadroko X) atalean zehazten diren egikaritzeko baldintza bereziak kontratuko funtsezko betebeharrak izatera izango dute SPKL legeko 211.f) artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako.

Halaber, ondorio horietarako, kontratuko funtsezko betebeharrak modura hartuko da Ezaugarrien Koadroko J) atalean nahikoa giza baliabide edo baliabide material atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa esleipendunaren erruz eteten denean, behin betiko bermea bahitu egingo zaio, kalte-ordainaren kalterik gabe, hala badagokio, Administrazioari sorrarazitako kalte eta galerengatik, bahitutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

13.17.- KONFIDENTZIALTASUNA. *Plegu honen xede den prestazioa egikaritzearen ondorioz datu pertsonetara eta Administrazioaren titulartasunekoak diren fitxategian dauden tratamenduetara jo beharko balitz, esleipendun suertatzen den erakundeak tratamenduaren Xede diren datuen Tratamenduen Arduradun gisa jokatuko du, Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/678 Erregelamenduko (EB) 28. artikuluan, eta hura estatuan garatzeko araudian ezarritakoaren arabera. Hirugarrenen*



HIRUGARRENA.- Era berean, Klausula Administratibo Berezien Pleguko lehendabiziko klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ezatzen dituela.

LAUGARRENA.- Aurreko 2. eta 3. ataletan, hurrenez hurren, aipatzen diren legezko eta arauzko dokumentu eta testu guztiekin ados dagoela, haren mende ipintzen dela bere borondatez eta osorik eta aldaketarik gabe onartzen dituela.

BOSGARRENA.- Obrak hurrengo eskaintza ekonomikoarekin eta epeekin osorik egikaritzeko konpromisoa hartzen duela:

<i>Eskaintza BEZ aparte</i>	<i>BEZ</i>	<i>Prezioa guztira</i>

Zenbateko horretan aplikagarri diren zerga, tasa eta edozein erako kanonak barneratzen dira, eta baita prestaziotik eratortzen den beste edozein gastu, edo Pleguetan jasotzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz enpresa esleipendunerako sortzen direnak.

Idatzi honetara eranskin bat atxikitzen da. Bertan balioetsitako memoriaren aurrekontuetan agertzen den unitate bakoitzerako unitateko prezioen zerrenda bat jasotzen da, eskaintza ekonomikoa taxutu eta justifikatzeko baliagarri izan direnak.

SEIGARRENA.- (...Hala badagokio...), konpromiso hauek hartzen dituela:

- a) Berme-epea ... urte gehigarritan areagotzekoa, pleguan gutxienez eskatzen den bermeaz gain, eta bertan ezartzen diren baldintzetan.
- b) Obrak egikaritzeko epea murriztekoa, asteko epean, pleguan aurreikusitako 6 hilabeteekiko.
- c) Kontratuaren egikaritzera atxikitako lantaldean kontratu mugagabeko (zenbakia) pertsona barneratzekoa.

ZAZPIGARRENA.- (...Hala badagokio...) Ingurumena kudeatzeko duen sistema EMAS, ISO 14001, Ekoskan edo baliokidea dela/ (Hala badagokio) horiek txertatzeko enpresa hornitzaileak eta obran erabiltzeko materialen fabrikatzaileak dituela, guztira (zenbakia).

ZORTZIGARRENA.- (Hala badagokio...), azpikontrataziorako xehetasunak zehazten dira.

BEDERATZIGARRENA.- Gutun-azal honetara atxikitzen ditudala:

- Idatzi bat, esleipendun izanez gero, hala badagokio, tabernaren funtzionamenduaz arduratuko diren langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adieraztekoa. Eta idatzi horretan, behin kontratua esleitura, langileei egiaz aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio oro helarazteko konpromisoa jasotzen da.

- Idatzi bat, kontratuaren lizitazio, esleipen eta egikaritze prozesutik eratorritako datu guztiak erakundeetara gardentasunez emateko betebeharrak onartzen dudala borondatez, kontratua amaitu bitartean.

Lekua eta data)

*Ayuntamiento de Artziniega
(Alava)*



*Artziniegako Udala
(Araba)*

Sinadura.....
NAN/IFZ.....

II. ERANSKINA

**BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA ETA EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK
BETETZEARENA**



III. ERANSKINA

ENPRESAK HELARAZITAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL MODURA DEKLARATZEA

.....Jaun/andreak, adin nagusikoak,(e)koa,
jakinarazpenetarako helbidea.....kalean duenak,datarekin
igorritakozenbakidun NAN agiriaren jabe denak, berezko izenean (edo
.....(eko)(r)en izenean edo hura ordezkatzuz), helbidean
.....(e)an duenak, Nahikoa Ahalarekin egiaztatzen dudanez,enpresako
telefono-zenbakiarekin, etaenpresako faxarekin

ADIERAZTEN DU:

LEHENA.- Kontratatuzailearen Profilean / Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren berri duela, Artziniegako Udal igerilekuak egokitze obrak egikaritzeko lizitazioa deitzea.

BIGARRENA.- Beheran adierazten den gutun-azalean helarazitako dokumentazioari dagokionez, eskaintzako hurrengo informazio eta alderdiak konfidentzial modura hartzen direla sekretu tekniko edo komertzialekin duten lotura dela medio.

Informazio eta alderdi konfidentzialak:

Gutun-azala

.....
(Lekua eta data)

Sinadura.....

NAN/IFZ.....



IV. ERANSKINA ADIERAZPEN ARDURATSUA. AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

.....Jaun/andreak, adin nagusikoak,(e)koa, jakinarazpenetarako helbidea.....kalean duenak,datarekin igorritakozenbakidun NAN agiriaren jabe denak, berezko izenean (edo(eko)(r)en izenean edo hura ordezkatzuz), helbidean(e)an duenak, Nahikoa Ahalarekin egiaztatzen dudanez,enpresako telefono-zenbakiarekin, etaenpresako faxarekin

ADIERAZTEN DU

Lehena.- Kontratazailearen Profilean / Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren berri duela, Artziniegako Udal igerilekuak egokitzeko obrak egikartzeko lizitazioa deitzekoa.

Bigarrena.- Klausula administratibo berezien plegua eta dokumentazio teknikoaz aztertu eta ezagutzen dituela.

Hirugarrena.- Era berean, kontratazio honetan aplikatzekoak diren legezko eta arauzko testuak ezagutzen dituela.

Eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeko (SPKL) legeko 140. artikulua betez berariaz aitortzen dudala esleipendun izateko ahalmen eta kaudimenari buruz legez eta kontratazio honetan aplikagarri diren baldintza administratiboan Pleguetan ezartzen diren baldintza guztia betetzen ditudala, Administrazioak hala eskatzen duenean haiek helarazteko konpromisoa hartuz. Zehazki:

- *Izaera juridikoa duela eta, hala badagokio, ordezkatzekoa.*
- *Plegu honetan kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalarekin lotuta eskatzen diren betekizunak betetzen dituela.*
- *SPKL legeko 71. artikuluan jasotzen diren kontratatze debekurik ez duela, eta indarreko xedapenek agintzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.*
- *Edozein ordenako Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikziori lotzen zaiola, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala badagokio, lizitatuzaileari egokitu ahal zaion atzerriko foru jurisdikziokoari muzin eginez (Atzerriko enpresen kasuan).*
- *Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoadela, telefonadela, eta faxadela.*
- *Ahalmenari eta kaudimenari buruzko baldintza horien inguruko betekizunak Plegu honetan proposamenak aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik betetzen dituela.*

Laugarrena.- Aurreko atalean aipatzen diren dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatze konpromisoa hartzen duela, bera esleipendun modura proposatzen bada edo horretarako eskatzen zaion edozein unetan.

Eta hala ager dadin, adierazpen hau sinatzen dut

Lekua eta data

Sinadura

NAN edo IFZ

Sinatuta:

V. ERANSKINA. ENPRESA-TALDE BATEKO KIDE IZATEARI BURUZKO ADIERAZPENA



.....Jaun/andreak, adin nagusikoak,(e)koa jakinarazpenetarako helbidea.....kalean duenak,datareki igorritakozenbakidun NAN agiriaren jabe denak, berezko izenean (ed(eko)(r)en izenean edo hura ordezkatzuz), helbidea(e)an duenak, Nahikoa Ahalarekin egiaztatzen dudanez,enpresak telefono-zenbakiarekin, etaenpresako faxarekin

ADIERAZTEN DU

LEHENA.- Kontratatzailearen Profilean / Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutak iragarkiaren berri duela, Artziniegako Udal igerilekuak egokitzeko obrak egikaritzeko lizitazio deitzekoa.

ADIERAZTEN DU

	<input type="checkbox"/>	Ordezkatzen duen sozietatea enpresa-talde batekoa dela.
--	--------------------------	---

Adierazi "X" batekin baiezkoa baldin bada)

Erantzuna baiezkoa baldin bada, dokumentu honen eranskinean taldera lotzea zein inguruabarrak eramaten duen adierazi behar da, eta baita talde berekoak diren enpresen zerrenda, lizitaziora jotzek interesa duten haiek aipatuz.

.....
Lekua eta data
Ordezkariaren sinadura

VI. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESEN DOKUMENTAZIOA

NAN/IFZ.....

1.- Europara Batasunakoak diren edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoa diren enpresak izanez gero esleipendunak, horien ahalmena, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzeko, Europar Batasuneko Estatu Kide batek kontratatzeko ezarritako baimendutako enpresen zerrenda ofizialean begiratu daiteke edo pleguetan ezarritako dokumentazioa helarazi daiteke, berezitasun hauekin:

1.1.- Identifikazioari dagokionez, finkatuta dauden herrialdean duten izaera egiaztatzeko dokumentua edo Batasuneko pasaporteak aurkeztu beharko dute.

1.2.- Enpresek jarduteko ahala dutela ulertzen da, finkatuta dauden Estatu legeria betez, dagokion prestazioa burutzeko gaituta daudenean. Legeria horretan bertan dagokion zerbitzua emateko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen denean, betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.



Jarduteko ahalmena dagokion Erregistroaren inskripzioarekin egiaztatuko da finkatuta dauden Estatuko legeriarekin bat etorritz, edo zinezko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, arauz ezartzen den moduan, aplikagarri diren Batasuneko xedapenei jarraiki.

1.3.- Edozein ordenako Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikziori lotzea adierazteko berariazko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala badagokio, enpresa lizitatzailari egokitu ahal zaion atzerriko foru jurisdikziokoari muzin eginez.

1.4.- Sailkapena eskatzen baldin bada, nahikoa izango da dagokion kontratazio-organoaren aurrean kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa egiaztatzea, plegu honetako 5. klausulan eskatzen denarekin bat etorritz, eta SPKL legeko dagokion artikulua betez.

2.- Batasunekoak ez diren enpresek pleguetan ezartzen den dokumentazioa egiaztatu beharko dute, berezitasun hauekin:

2.1.- Identifikazioari dagokionez, finkatuta dauden herrialdean duten izaera egiaztatzeko dokumentua aurkeztu beharko dute.

2.2.- Jarduteko ahalmena Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostenarekin egiaztatuko da dagokion Estatuan edo enpresaren helbidea kokatuta dagoen lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostenarekin.

2.3.- Atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak, aldi berean, Administrazioarekin eta SPKL legeko 3. artikuluan zerrendatzen direnekin bat datozen sektore Publikoko erakunde, organismo edo erakundeekin kontratatzean Espainiako enpresen partaidetza onartzen dutela justifikatzea txosten bidez, modu adierazgarrian antzekoa den eran. Txosten hori atzerrian dagoen Espainiako Bulego Ekonomiko eta Komertzialak eratuko du eta aurkeztu den dokumentaziora gaineratuko da.

Erregulazio harmonizatuari lotuta dauden kontratuetan aurreko atalean Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Erabakia sinatu duten Estatuak enpresei dagokienez aipatzen den elkarrekikotasunari buruzko txostena ez da beharrezkoa izango.

2.4.- Plegu honetako 5.1. atalean aurreikusten baldin bada, Espainiako Estatuan sukurtsala irekita duela, eragiketak burutzeko ahalduak edo ordezkariak izendatuta eta Merkataritza Erregistroan izen emanda dagoela adierazita.

2.5.- Edozein ordenako Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikziori lotzea adierazteko berariazko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala badagokio, enpresa lizitatzailari egokitu ahal zaion atzerriko foru jurisdikziokoari muzin eginez.

2.6.- Enpresak finkatuta dauden herrialdean eskatzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioarekin lotzen direnak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiria herrialde horretan eskumena duen agintaritzak igorriko du, indarrean diren legezko xedapenekin bat etorritz.

3.- Atzerriko enpresek dokumentazio guztia modu ofizialean gaztelaniara itzulita aurkeztuko dute.



VII. ERANSKINA ESLEIPEN-PROPOSAMENA EGITEN ZAION ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTEKO ADIERAZPEN ARDURATSUAK

.....Jaun/andreak, adin nagusikoak,
.....(e)koa, jakinarazpenetarako helbidea.....kalean
duenak,datarekin igorritakozenbakidun NAN agiriaren jabe
denak, berezko izenean (edo(eko)(r)en
izenean edo hura ordezkatzuz), helbidean(e)an duenak, Nahikoa
Ahalarekin egiaztatzen dudanez,enpresako telefono-zenbakiarekin, etaenpresako
faxarekin

ADIERAZTEN DU

LEHENA.- Hau sinatzen duenean ez dagoela Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren matrikulan baja emanda.

.....
(Lekua eta data)
Ordez kariaren sinadura

NAN/IFZ.....

VIII. ERANSKINA: ABALAREN EREDUA

Kontratuaren xedea:

Erakunde abal-

Kreditu erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen sozietate-izena

IFZ

Helbidea (jakinarazpen eta eskakizunetarako)

Herria

P.K.



Pertsona ahaldunen izen-abizenak

Erakunde abal-emaileak eta haren izenak. La entidad avalista y su nombre, los apellidos

Izen-abizenak edo sozietate-izena

NAN/IFZ

Zenbatekoa

€

(■ hizkitan)

Arau eta artikulua hauetan xedatutakoaren arabera bermearen eraketa ipintzen da.

Bermearen eraketa agintzen duten arau eta artikulua/k

Administrazioaren aurrean betebeharrak hauen aurrean erantzuteko:

Kontratuaren xedea edo bermatuak baitaratutako betebeharra

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeko Erregelamendu Orokorreko 56.2. artikuluan aurreikusten diren betekizuna betetzen dituela. Abal hori modu solidarioan ematen da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio-onurari berariaz muzin eginez, eta Administrazioaren lehen eskakizunean ordaintzeko konpromisoarekin, Sektore Publikoko kontratuen legerian, hura garatzeko arauetan eta Gordailuen Kaxa Orokorra arautzeko araudian aurreikusitako baldintzen baitan.

Abal hau indarrean egongo da Administrazioak edo haren izenean horretarako legez gaitutakoak hura ezeztatu edo itzultzea baimentzen duen arte SPKL legean eta legeria osagarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

.....

*Lekua eta data)
Erakundearen sozietate-izena
Pertsona ahaldunen sinadura*

**AHALORDEEN ASKIESPENA IDAZKARITZA NAGUSIAREN ESKUTIK HURRENGO
ADMINISTRATIOAREN ASKIESPENENKO ZEREGINETAN:**

Administrazioa



Data

Zenbakia edo kodea

”

Alkatea: beno, hau dagoeneko esleipenaren azken urratsetako bat da. Orain udal igerilekuen obra lizitaziora aterako dugu, igerilekuak berritu egingo dira. Zenbatekoa dagoeneko esan dizuet, 396.469 euro. Lizitazioan agertzen den epea 6 hilabetekoa da, balioespen horien barnean xedapen bat edo klausula bat sartu da, hala, obra murrizten den aste bakoitzeko 2,6 puntu emango dira, gehienez 10 puntu eskuratzera arte Hots, aurkezten den enpresak epe hori 6 hilabetetik 5 hilabetera murriztu dezakeela. Orduan, gaurtik aurrera, pleguak onartzen direnetik aurrera, bihar plataforma digitalera igoko da. Hori izango da plataforma digitalera igortzeko formatu berriarekin gure lehen kontratua. 20 egun natural egongo dira...

Ascension Hormazabal Meabe: kontratu horretan muga-eguna azaroaren 29a izango litzateke.

Alkatea: azaroaren 29an parte hartzen dutenen gutun-azalak irekiko dira, parte har dezaketen enpresa ezberdinena, eta hortik aurrera lehenbailehen esleipenari heldu beharko zaio eta berritzeko obrei ekin ahalik eta azkarren. Ezer esateko?

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

3.- BARRATXI Gurasoen Elkartearekin hitzarmena onartzea 2020ko ekitaldira begira.

Alkateak 2019ko urriaren 30ean egindako agenda, jarduera, hezkuntza, euskara eta kirolekako Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du:

“2019ko URRIAREN 30eko AGENDA, JARDUERA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLEKAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA.

Ikusi da Artziniegako Udalaren eta Barratxi Ikasleen Guraso Elkartearen (IGE) arteko Lankidetzaren Hitzarmena.

KONTUAN IZANIK hitzarmen horretan Udalak konpromisoa hartzen duela Barratxi GE elkarteari diru-laguntza bat emateko, kontzeptu ezberdinengatik, 2020eko ekitaldirako hurrengo aurrekontu-aplikazioak sortuta:

- 323.480.000 - Ekipamendu psikopedagogikoa. **7.000,00 €**
- 323.481.008 - Eskolaz aparteko Jarduerak. **8.500,00 €**
- 323.481.009 - Haurtzaindegiko Teknikari espezialista. **11.300,00 €**
- 323 481010 Haurtzaindegi Zerbitzua: **9.700,00 €**

KONTUAN IZANIK Hitzarmen horren indarraldia 2020eko urtarrilak 1 eta abenduak 31 bitartekoa izango dela.



KONTUAN HARTUTA 2020eko ekitaldirako aurrekontuan aurrekontu-aplikazioak Hitzarmenean ezarritako banaketara egokitu beharko direla, izaera nominatiboa izanik. Diru-laguntzaren justifikazioa aurrekontua egikaritzeko Arauaren 33. artikuluan eta hurrengoetan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 29. artikuluan eta hurrengoetan eta Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan ezarritakoaren baitan geratuko dela.

Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22.2. artikulua arabera, diru-laguntzak zuzenean eman daitezke, Aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusiak, horretarako sinatutako Hitzarmenetan jasotako baldintzetan, non diru-laguntza horretan aplikagarri den araudia arautzen baita.

Horregatik guztiagatik, Udaltzari proposatzen zaio, bere eskuduntzen arabera, har dezala hurrengo **AKORDIOA**:

LEHENA.- Artziniegako Udalaren eta Barratxi GE elkartearen arteko 2020eko ekitaldirako Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, Arteko Gure Ama Ikastetxean burutzen diren zerbitzu eta jardueren finantzaketan kolaboratzeko xedea duena.

Barratxi GE elkarteak bere urteko aurrekontua aurkeztu beharko du Udalean, diru-laguntzaren konturako entrega burutu aurretik Hitzarmenean ezarritako portzentajearen.

Honakoa da Lankidetzaren testua:

“ARTZINIEGAKO UDAL TXIT GORENAREN ETA ARTZINIEGAKO ARTEKO GURE AMA IKASTETXEKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAREN (BARRATXI GE) ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Artziniegan,(e)ko.....ren.....(e)an

ELKARTUAK

Alde batetik, Joseba Mirena Vivanco Retes jauna, 30.607.841Q NAN zenbakiaren jabea, Alkate-Presidentea, Artziniegako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Beste alde batetik ...Jaun/andrea NAN zenbakiaren jabea, “BARRATXI”
GE elkartearen presidente modura, helbidea kalean duena eta IFK zenbakia duena:

Bi aldeek Hitzarmen hau sinatzeko legezko nahikoa ahalmen aitortuz, eta horien arabera

AZALTZEN DUTE

LEHENA.- Artziniegako Udalaren borondatea dela, berezko ezaugarriak kontuan izanik, Artziniegako Udalerriko Gurasoen elkartearekin batera udal zeregina elkarren artean kudeatzea ahalbidetzeko proiektuak sustatzea.

BIGARRENA.- “Barratxi” Gurasoen Elkarteak (aurrerantzean “Barratxi” GE) interesa duela Artziniegako Udalarekin kolaboratzeko Arteko Gure Ama ikastetxeko prestakuntza-jardunaren osagarri izateaz gain ikasleen garapenerako jardun kultural eta sozialaren osagarri izango diren eskolaz aparteko jarduerak xede izango dituzten proiektuak abiarazteari dagokionez.

HIRUGARRENA.- Lankidetzaren honetan, Artziniegako Udalak “BARRATXI GE” elkartearekin batera esku-hartzen duela lankidetzaren esparruaren barnean, berezko baliabideekin, hitzarmen



honetan aipatzen diren proiektu edo xedeetarako elkarren arteko finantzaketarik edo kanpoko finantzaketarik izan gabe, 2020. urterako gastuen aurrekontuan modu nominatiboan kontsignatutako aurrekontu-aplikazioen kargura

- 323.480.000 - Ekipamendu psikopedagogikoa. **7.000 €**
- 323.481.008 - Eskolaz aparteko Jarduerak. **8.500 €**
- 323.481.009 - Hartzaindegiko Teknikari espezialista. **11.300 €**
- 323 481010 Hartzaindegi Zerbitzua: **9.700 €**

KLAUSULAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA.- Hitzarmen honen xedea da hurrengoa:

- 1) Hezkuntza Sailak emandako zerbitzua indartzeko arreta psikopedagogikorako zerbitzuaren kontratazioa finantzatzea, helburutzat izanik ikastetxeko hurrekiko arreta, ikasgelan esku-hartuz eta familia nahiz irakasleei laguntza eskainiz.
- 2) Eskolaz aparteko jarduerak finantzatzea, betiere, Zentroko ikasle guztien onuran diren jarduerak izanik.
- 3) Hartzaindegietan espezialista den Teknikari baten kontrataziotik eratorritako gastuak finantzatuko dira, bi urteko ikasgelan errefortzu modura jardungo duena
- 4) Hartzaindegi zerbitzua: goizean, eskolak hasi aurretik, harrera-zerbitzua, ostegun arratsaldeko harrera-zerbitzua eta iraileko eta uztailleko harrera-zerbitzua ematetik eratorritako gastuak finantzatuko dira. Udalak gehienez finantzatzeko zenbatekoa zerbitzuaren kostu osoaren % 90era artekoa izango da.

Elkarteak gutxienez kostuaren % 10 finantzatu beharko du onuradun diren pertsonen kuotekin edo Elkartearen berezko baliabideekin. Kuoten zenbatekoa % 10etik gorakoa baldin bada, Udalak diru-laguntza murriztuko du zati proportzionalean.

Diru-laguntzatik kanpo geratzen dira Elkartearen barne funtzionamendutik, jardueren publizitatetik, zehapenetatik eta errekarguetatik eratorritako gastu guztiak, eta baita Artziniegako Udaleko diru-laguntzak arautzeko Ordenantzako 2. artikuluan adierazitako guztiak.

BIGARRENA.- IRAUPENA.- Hitzarmen honen iraupena 2020eko urte naturalekoa izango da, 2020eko urtarrilaren 1etik 2020eko abenduaren 31ra bitartean luzatuz, hedatuz aukerarik izan gabe.

HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN GARAPENA, ALDEEN BETEBEHARRAK.- Hitzarmen honetan barneratzen diren jarduerak garatu ahal izateko aldeek indarraldian zehar hurrengo betebeharrak hartzeko konpromisoa hartzen dute:

A) ARTZINIEGAKO UDALAK, konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Jarraipen eta koordinaziorako bilkuretara bertaratzea emandako diru-laguntzaren ardura duen "BARRATXI GE" elkartearekin batera.

2.- Diru-laguntza izaerako ekarpen ekonomikoak egitea aurrez adierazitako zenbatekora iritsi arte, langile espezializatuek emandako prestazioen garapena eta hitzarmen honen xedea eratzten duten jarduerak partzialki ordaintzeko, gain-finantzaketarako aukerarik gabe, edozein kasutan erabiltzaileen kuotak deskontatuz.

B) Artziniegako Arteko Gure Ama Ikastetxeko BARRATXI GE elkarteak, konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Hitzarmen honen xede diren jarduerak burutzea, onartutako proiektuak garatzea dutenak xede.



2.- Artziniegako udal barrutiaren barnean eragindako pertsonen ezagutzarako beharrezkoa den informazioa hedatzea.

3.- Eskolaz aparteko jarduerak garatzea, edo eskolako ordutegiz aparteko laguntza jarduerak.

4.- Udal espazio eta instalazioak erabiltzea, hitzarmen honetako xede diren jardueretarako soilik lagatzen direnak.

5.- Jardueren proiektu tekniko eta ekonomiko bat aurkeztea ikasturtearen hasieran, urteroko indarraldia duena, jarduera bakoitzean aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak zehaztuta, nahiz onartutako diru-laguntza nora bideratuko den justifikatzen duen azken memoria bat aurkeztea.

6.- Izendatutako udal ordezkariarekin jarraipen- eta ebaluazio-bilkurak deitu, programatu eta koordinatzea, hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipen egokia burutu eta, era berean, horien ebaluazioa burutzeko helburuarekin.

7.- Programatutako jardueren garapen eta egikaritzetik, Elkarteko kideen lanketa eta zereginak betetzetik nahiz burututako jarduerak garatzeko lagatako instalazioen erabilera egokitik eratorritako ardurak hartzea.

LAUGARRENA.-EKARPEN EKONOMIKOA ORDAINTZEA.- Hitzarmen honen bidez onartutako kopurua ordainketa hau egindako ordainduko da:

% 60 urtearen hasieran, behin 2019. urteari dagokion azken justifikazioa aurkeztuta. % 60 hori konturako entrega modura hartuko da eta uztailearen 31 baino lehen justifikatu beharko da, behin ikasturtea amaitu ondotik.

% 40 ikasturtearen hasieran, ikasleen eta "Barratxi IGE" elkartearen jarduerak, kostuak eta partizipazioak edo ikasturtean zehar gauzatuko diren bestelako diru-laguntza aurreikuspenak banakatzeko memoria aurkeztu ondotik. Kopuru hori konturako entrega modura hartuko da eta 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen justifikatu beharko da.

BOSGARRENA.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN.-

Diru-laguntza horiek bateragarri izango dira xede berdinarekin emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazio edo erakundetik, publiko nahiz pribatutik, eratorriak.

Diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du, inolaz ere, izan diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditi, ez zenbateko bakarrean edo bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk gaineratuta.

Kasu horretan, udal diru-laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako xedera bideratutako zenbatekoa erakusten duen portzentaje berean, gain-finantzaketarako aukerarik izan gabe.

SEIGARRENA.- EMANDAKO KOPURUEN JUSTIFIKAZIOA.-

1.- Emandako kopuruak azaroaren 17ko 38/2003 Legean, Diru-laguntzen Lege Orokorrean, Udal Aurrekontuak Egikaritzeko Oinarrietan eta Artziniegako diru-laguntzen emakida arautzeko Ordenantzaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira, Hitzarmen honetan eta klausula honetan aurreikusitako eta barneratutako manu zehatzak ere betez.

2.- Justifikazioa diruz laguntzeko jarduerak burutzeko epea amaitu ondorengo hurrengo bi hilabeteen barnean egin beharko da, epe hori luzatzeko aukerarik gabe. Epe hori betetzen ez bada diru-laguntza ez dela justifikatu ulertuko da eta hura itzuli egingo da Diru Bilketako Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako bideak erabiliz, bakoitzaren borondatez itzulketa egin ez bada.

3.- Helarazitako egiaztagiria faktura izaera izan beharko dute, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan aurreikusitako formalitateekin. Horietan horien **ordainketa justifikatzeko agiriak adierazi beharko dira**, edo ordainketa hori egiaztatzeko dokumentuak gaineratu beharko dira.

4.- Hitzarmen honetan aipatzen diren zerbitzu profesionalak eman edo jarduera burutzearekin zuzenean lotutako egiaztagiria onartuko dira soilik. Horrenbestez, ez dira onartuko otordu,



ospakizun, elikagai eta antzeko beste batzuekin lotutako justifikazioak, Hitzarmenaren xedea betetzearekin zerikusirik ez dutenak.

5.- Gastuak bat etorri beharko dira eta jardueren Memoriaren barnean zerrendatu beharko dira, ikasturte bakoitzaren hastapenean aurkeztu beharko dena.

6.- Justifikazioa Udal Erregistro Orokorrean abiatutako instantzia bidez aurkeztuko da Elkartearen ordezkari den pertsonaren eskutik, hura behar bezala egiaztatuz, egiaztagirien originalak eta kopiak gaineratuz, eta baita Hitzarmenaren xede diren jarduerak burutzeko Memoria jasoz ere.

ZAZPIGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAKOAK BETETA IZATEAREN EGIAZTAGIRIA.-

“BARRATXI IGE” Elkartek 38/2003 Legean, diru-laguntzen Lege orokorrean, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan nahiz Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bateginean aurreikusitakoaren arabera Ogasun Publikoarekiko zerga betebeharrak ordaindu izanaren betebeharra aurkeztu beharko du, Artziniegako Udalarekikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne. Horretarako, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, aipatu erakundeek igorrita, diru-laguntza izapidetu edo hitzarmen hau sinatu eta hiru hilabetera goizenez.

ZORTZIGARRENA.- EZ BETETZETIK ERATORRITAKO ONDORIOAK.-

Hitzarmen honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira diruz lagundutako Erakundeak jasotako funtsak itzuli egin beharko dira derrigorrez, eta ezingo da beste funtsik jaso aurrez modu desegokian jasotakoak itzuli bitartean.

BEDERATZIGARRENA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA.-

Diruz lagundutako Erakundeak indarreko araudian egiaztapen eta kontrolerako aurreikusitako esku-hartzeak burutu behar ditu ezinbestean, eta baita Artziniegako Udaleko Kontu-hartzailetzak burututako edozein zerga jardun ere.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA AMAITZEA.-

Hitzarmen honetako hizpaketak betetzen ez badira, esku-hartzen duen edozein alde aukera izango du hura eteteko, ondorio hauekin:

- Finantzazioaren galera.
- Ordaindutako kopurua itzultzeko eskaera.

HAMAIKAGARRENA.- ERANSKINAK.-

Onartutako diru-laguntzak arautzeko hitzarmen honen garapenean jarraian deskribatzen diren Eranskinak gaineratzen dira:

- I. eranskina- Programak burutu izana justifikatu eta azaltzeko azken memoria.
- II. eranskina – Fakturen egiaztapena. Betekizunak.
- III. eranskina- Finantza erakundearen datuak, Diru-laguntza ordaintzearen ondorioetarako.

UDALAK
ALKATEA

ELKARTEAK

PRESIDENTEA

Sinatuta: _____

Sin.: _____



I. ERANSKINA

PROGRAMA BURUTU IZANA JUSTIFIKATU ETA AZALTZEKO AZKEN MEMORIA

Diruz lagundutako (diru-laguntza ematen den urtea gaindituko ez duena) programa bakoitzaren justifikazioarekin batera programa burutu izana justifikatu eta azaltzeko dagokion azken memoria gaineratu beharko da. Bertan burututako jarduerak, horien kostua eta emandako gastuen egiaztagiriek duten harreman zuzena zehaztu beharko da, eta baita beste diru-laguntza, kuota edo kontzeptu batzuen ondoriozko diru-sarrerak ere, xehetasun osoz.

Honatz memoria bakoitzeko gutxieneko edukiak:

1. Erakundearen datu osoak.
2. Proiektuaren izena.
3. Haren deskribapena.
4. Egikaritze-epea
5. Burututako esku-hartzeak, horien kostuak eta jarduera bakoitzerako helarazitako fakturen deskribapena zehaztuta.
6. Proiektuan aurreikusitako helburuak eta eskuratutako emaitzak.
7. Ondorioak.

Memoria bakoitzarekin batera programako jarduerak hedatzeko erabilitako materialak eta haiek burutzean sortutako dokumentazioa gaineratu beharko da.

II. ERANSKINA

Gastuen justifikazioa egiaztatzeko ordainketaren agirien jatorrizkoak eta kopiak gaineratu beharko dira, diruz lagundutako jarduera bakoitzerako.

Fakturek hurrengo betekizunak bete beharko dituzte:

- Faktura-zenbakia.
- Igortzailea identifikatzeko datuak (izen-abizenak, izendapena edo izen soziala, IFZ eta helbidea).
- Hartzailea identifikatzeko datuak, diruz lagundutako erakundea izan beharko dena.
- Eragiketaren xehetasunezko deskribapena eta unitate-prezioa eta haren kontraprestazio osoa. Dagokion BEZ zerga islatu beharko da, kuota prezioaren barnean jasanarazten denean "BEZ barne" adierazi beharko da, edo BEZ zerga salbuetsita adiera.
- Igorpenaren lekua eta data (**puntu honetan igorpen-data diru-laguntza arautzeko arauetan ezarritako epearen barnean egotea eskatuko da.**)

halaber, fakturan hartu-agiria agertzea eskatuko da (haren igorlea denaren sinadura eta zigilua) edo ordainagiria.

Ordainagiria agertzeko "ORDAINDUTA" adierazi beharko da, establezimenduaren edo igorlearen zigilua eta sinadura fakturan bertan adierazita, 2.500 eurora arteko eskudiruzko ordainketen kasuan. 2.500 eurotik gorako kopurueterako ordainketa egiaztatuko da, zerga iruzurraren prebentzioari buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, banku-transferentzia bidez edo antzeko izaera duen merkataritza-dokumentu bidez. Aurrekoarekin bat etorritik, ez dira diru-laguntzaren baliozko egiaztagiri modura hartuko ordainketa egokiro egiaztatzen ez dutenak".

Gastu txikien kasuan, (garraioa, materiala, etab.) erakundearen ordezkariaren ziurtagiri bat gaineratu beharko da, gastu horiek jardueren programazioarekin edo elkartearen premiekin duten lotura justifikatuz.

Aurkeztutako fakturekin batera dokumentu elektroniko bat gaineratu beharko da, formatu irekian (Word), bertan haiek zerrendatuz eta eremu haiek izango dituenak:

- Faktura Faktura-data Erakunde Igorlea Kontzeptua IFZ/IFK Zenbatekoa



Diru-sarreraren justifikazioa horrela egiaztatuko da:

Beste diru-laguntza batzuk jasoz gero, diru-laguntzaren emakidari dagokion dokumentuaren jatorrizkoa aurkeztuz.

Jardueraren zati bat finantzatzen duten ikasleen ekarpenak egonez gero, ikasleen zerrenda aurkeztuko da, ordaintzeko kuotak adierazita, ematen den jarduera bakoitzeko.

Hala diru-sarreraren justifikazioak nola gastuenak Hitzarmenean adierazitako aurrekontu-aplikazio bakoitzerako egin beharko dira.

III. ERANSKINA

BANKU-ERAKUNDEAREN BANKU-DATUAK

FINANTZA ERAKUNDEAREN DATUAK, DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEAREN ONDORIOETARAKO

Banku-erakundearen izena

Helbidea

Erakundearen kodea

Bulego sukurtsala

Kontuaren

D.C.N

Kontuaren titularrak

IzenaNAN.....

IzenaNAN.....

IzenaNAN.....

Artziniegan, 2018ko.....ren.....(e)an

BIGARRENA.- Alkatetzari eskumena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazio oro sina dezan”.

Arkaitz San Jose Martinez: testuinguruan ipintzeagatik soilik, Artziniegako eskolako Guraso Elkartearekin hainbat urtetatik hona sinatzen ari garen hitzarmen bat da, eguneratu egiten dena, batez ere, sektore zenbait hitzarmen areagotu egin direlako eta zerbitzua ematen duten enpresa batzuekin kontratuan eguneratzeak izan direlako, nagusiki talde psikopedagogikoaren eta haurtzaindegiko teknikari adituaren kasuan, eta eskolaz aparteko jardueretan ere badago areagotze bat, batez, ere matrikulazioetan izan diren aldaketen ondorioz sortuak, eta iaz jadanik ezinezkoa izan zen eta ez zen egin, zenbait ikaslek ezin izan zuten joan eskolako jardueraren barnean eskaintzen den igerilekuetako jarduerara, orduan areagotu egin beharko da zer egin daitekeen ikusteko. Eta haurtzaindegiaren zerbitzuan zenbatekoa murriztu egiten da pixka bat, eskaeran beherakada bat erregistratzen ari baita. Hori guztiori lankidetzan egin da, Guraso elkartearekin eztabaidatu da, eta hasiera batean, hitzarmenean islatzen den moduan, dituzten premiei hobeto erantzun ahal izango litzaieke. Besterik gabe, eta urtero pasa behar denez, osoko bilkurara ekarri dugu.

Alkatea: inork zerbait esan nahi badu...

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.



Onartuta geratu da.

4.- EH Bilduren mozioa, Jesus Romeo Gorriari, herriko adopziozko semearen izendapena kentzeari buruzkoa.

Arkaitz San Jose Martinezek mozioa irakurri du:

“Euskal Herria Bildu Udal Taldeak bere egin du Udaletxe honetan 2019ko urriaren 25eko sarrera-datarekin erregistratutako eta helbidea Barrenkale 2b 2. kalean duen Alberto Martinez Gutierrez-Barquin Artziniegako auzotarrak, 30672825W NAN zenbakia duenak, sinatutako eskaera, Udalbatzan eztabaidatu eta onar dadin, eta mozio hau aurkeztu du eztabaidatu eta onar dadin.

1968ko abuztuaren 2an Artziniegako udaletxe zaharrean egindako Osoko Bilkuran, honakoa adostu zen:

“Probintziako Gobernadore Zibil Txit gorenari Artziniegako herriko adopziozko semetzat Jesus Romero Gorria jaun Txit Gorena izendatzeko proposamena helaraztea adosten da”, titulu hori, bide batez, Arteko Santutegian jaso zuen 1969ko abuztuaren 29an.

Nor izan zen Romero Gorria?

Jesus Romeo Gorria Bilbon jaio zen 1916ko irailaren 19an. Gazte zela, Falangean sartu zen. Batxiler modura prestatzen zen bitartean, ikasleen sindikatu falangista zen Espainiako Unibertsitate Sindikatuko (SEU gaztelaniazko ikurrak) probintziako buru modura ageri da Iruñean. Berandugo, 1936ko uztailaren 18ko militarrek emandako kolpera batu zen beren borondatez. Antolaketak lanak eginez eta SEU sindikatuko Nafarroako zenturiako ofizial izatera iritsiz. Azken hori zela medio, Nafarroako eta Kanpainako Boluntarioaren domina (hiru gurutze gorri) eta Aberriaren aldeko sufrimenduen Domina (bi pasagailu eta Gerrako Gurutzea) eskuratu zituen. Azken hori "borrokan ekintza edo zerbitzu oso nabariak" egin zituzten Espainiako militarrei ematen zitzaien.

Zenturia horiek, Nafarroako Brigadekin batera, uste dut guztiok dakigula zer-nolako basakeriak egin zituzten, hala Nafarroan nola iparraldeko kanpaina osoan (Bilboren erosketa, besteak beste), eta milaka hildako eta fusilatu utzi zituzten. Horien artean, gure udalerriko biztanle hauek:

Buenaventura Zaldivar Fernandez, 1937ko irailaren 6an fusilatua; Faustino Vallejo Peña, Casetas espetxean (Zaragoza) zegoenean jasotako astinaldien ondorioz hil zena; Matias Reigadas Velasco, Puerto de Santa Mariako espetxe Nagusian preso zegoela hil zena; Froilan Enrique Arregui San Juan, 1937ko maiatzaren 22an Diman hil zena; Modesto Cuesta Isasi-Isasmendi, 1937ko martxoaren 31n Elorrion hil zena; Felipe Santa Coloma Velasco, 1937ko urtarrilaren 17an Urduñan hil zena eta Domingo Rivacoba Ureta, 1937ko urtarrilaren 2an Berazako San Pedro mendian, Urduña eta Amurrio artean hil zena, bonba batek erdiz erdi ireki ostean. Azken kasu hori lotsagarria da erabat, udal hilerrian lurperatu baitzuten bere izena agertzen zuen hilarrikeri ere izan gabe, egun hala jarraitzen du.

Horiek frankisten erruz hildako pertsonen gainean lekukotza jaso izan diren kasu soil batzuk baino ez dira. Gure mendietan barreiatuta jarraitzen duten hildako guztiak, pertsona errepublikanoei edo herriko "abertzaleei" kendutako ondareak eta erregimen autoritario hartako ehunka errepresaliatu politikoak ez aipatzearen, Romeo Gorria Laneko Ministro izan zelarik erregimen hartan.

Kasu bat aipatzearen Juan Zabalgaitia Andrade, alkate izan zena, 1937ko ekainaren 27an Artziniega erori zen arte, Puerto Santa Mariako espetxean preso egon zen.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkezten dugu, Udalbatzan eztabaidatu eta onar dadin:

Artziniegako Udalbatzak Jesus Romeo Gorriari, herriko adopziozko semearen izendapena kentzea adostu du”.



Alkatea: Arkaitzek azaldu duen moduan, hau Udaletxera iritsi den eskaera bat da, udalbatzara eramateko mozio modura. Guk udal talde modura bideratzea erabaki dugu udalbatzara iritsi zedin, eta gaur hona dakarkigu. Ezer esan nahi bada.

Encina Castresana Astarloa: Guk, EAJ udal talde modura baiezkoa bozkatuko dugu, baina soilik Jesus Romeo Gorriari adopziozko semearen izendapena kentzeari dagokionez, izan ere, izendapen hori aro frankistako Udala ez demokratiko batek eman zion. Aurkezten duen zioen gainerako azalpenak zehaztasun historikorik ez dutela uste dugu eta ikuskera subjektiboen ondorio direla.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

5.- Artziniegako Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. aldaketaren hirigintza dokumentua onartzea, abenduaren 19ko 363/2018 foru aginduz hartua.

Ascension Hormazabal Meabe: Laugarren aldaketa Foru Aldundiak onartu zuen behin betikoz, 2018ko abenduan, adierazgarriak ez diren aldaketa batzuek baldintzatuta, 2019ko irailaren 4an aurkeztutako dokumentuan islatu direnak; dokumentu hori, Udalak onartu behar duena, ez da jendaurrean ipintzen, izan ere, aldaketak ez dira adierazgarriak, dilijentziak egin eta 4 ale Foru aldundira igorri behar dira.

Alkateak akordio-proiektua irakurri du.

“AKORDIO-PROIEKTUA

“Artziniegako Plangintzako Arau Subsidiarioen laugarren aldaketaren hirigintza dokumentua onartzea, abenduaren 19ko 363/2018 foru agindura egokitua.

Ikusirik 2017ko urriaren 7ko osoko ohiko bilkuran Udalbatzak hartu zuen erabakia, non Artziniegako Arau Subsidiarioen Uneko laugarren aldaketa behin behinekoz onartu baitzen 4-701 partzela kalifika zedin “Lurzoru Urbanizaezin eta Trantsizioko Landa Paisaia modura eta Eusko Jaurlaritzara eta Arabako Foru Aldundira igorri baitzen administrazio-espeditiarekin batera.

Ikusirik abenduaren 19ko 363/2018 Foru Agindua, 2019ko urtarrilaren 11ko 5. ALHAO aldizkarian argitaratu zena, Artziniegako Udala Plangintzako Arau Subsidiarioen laugarren aldaketarako baldintzak behin betikoz onartzekoa.

KONTUAN IZANIK, interesdunak abenduaren 19ko 363/2018 Foru Agindurako egokitutako 2019ko irailaren 4an Artziniegako Arau Subsidiarioen uneko aldaketarako hirigintza dokumentua aurkeztu zuela (2.505 erregistro-zenbakia)

KONTUAN IZANIK Foru Aginduan ezarritakoaren arabera, adierazitako baldintzak ez direla adierazgarriak eta, beraz, ez dela beharrezkoa jendaurreko beste izapide batera eramatea.

AINZATETSIZ, udal arkitektoak 363/2018 Foru Agindua ezarritako baldintzak konpondutzat ematen dituen txostena igorri zuela eta espeditatea Arabako Foru Aldundira bideratzea dagokiola, nork gauzatu duen deklaratu eta haren dilijentzia bete eta argitaratze aldera.



Horretan oinarrituta, Udalbatzak, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa beharrezkoa izanik, hartu du hurrengo,

AKORDIOA

LEHENA. *Onartzea "Artziniegako Arau Subsidiarioen uneko laugarren aldaketarako hirigintza dokumentua, abenduaren 19ko 363/2018 Foru Agindura egokitua", modu korrelatiboan zenbakitutako 19 orrialde eta "Kalifikazio Orokorra- indarreko Arau Subsidiarioak 4.B" eta Kalifikazio Orokorra- Aldaketa 4.B-M2019" izeneko bi planoekin osatzen dena.*

BIGARRENA. *Aurkeztutako dokumentuei dilijentzia ematea eta Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuari lau ale igortzea paperean eta 2 CD".*

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da

6.- 2019. ekitaldiko hirugarren hiruhilekoko aurrekontu-egikaritzearen berri ematea.

Alkatea: hau da, 2019ko aurrekontuaren egikaritzea badoanez. Ez dakit kapituluren bati buruz edo gauza jakinen bati buruz galderarik dagoen.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

7.- 2019ko hirugarren hiruhilekoko ordainketarako batez besteko epealdiaren txostenaren berri ematea.

Ascension Hormazabal Meabe: 22 egunetan gaude.

Alkatea: 22 ordainketa egun batez beste

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);

8.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 263 eta 299 bitarteko dekretuen berri eman du. 271. dekretua falta da.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu taldekoak (5) taldekoak; Encina Castresana Astarloa eta Jose Miguel Vadillo Ribacoba, EAJ alderdikoak (2);



9.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Alkatea: Ez gara Josebarekin hasiko, ez bertaratzearen arrazoia eman baitu. EAJ udal taldera pasako gara.

- Jose Miguel Vadillo Ribacoba: erdiko kaleko hesien kontua, eta baita Iturrialdeko zonaldearen ere hesi bat dagoela kolpatuta. Eta adierazi nahi genuen beste gauza bat da ea platanondoak kima daitezkeen hostoa erori aurretik.

Alkatea: beno, platanondoaren kontuarena kontsultatuko dugu ea posible den, eta esango dizuegu.

Iturrialdeko hesiaren kontuarekin, bai, ez dakit auto batek, kamioi batek edo zerk jo zuen hor, eta hasiera batean inork ez zuen ikusi eta inork ez zuen kolpearen parterik eman.

Artekaleko hesiaren kontuarekin, testuingurua ipintzearen, erdi aroko azokaren ondotik parrokiako kantoian dauden hesiak, Goienkaletik doana, liburutegitik, Artekalera, ez ziren berriro ipini. Parapeto lana egiten duten hesiak ez ziren berriro ipini. Hasiera batean, gure asmoa ez zen ipintzea, izan ere, azken batean, hesi horiekin, erdiguneko zonaldearen igarobidea ari gara oztopatzean, kanto horretan harriztatuta ez dagoena, eta harriztatzea konplexu samarra da, bertatik gurpildun aulki batekin joan behar izan duenak, edo haurren orga batekin tiraka joan denak ikusiko zuen harriztatze horretatik joatea oso zaila dela, eta kontua da hesi horiekin ikusi genuela, bertatik bertara ikusi baikenuen, gurpildun aulki batean bultzaka daramaten pertsona batek ezin duela, bira eman behar du harriztatza ezin baitu atera, sigi-saga hori, harriztatza itzuli, eta berriro atera. Orduan, berriro ez ipintzea erabaki genuen, izan ere, azken batean, jakina, bai, arkitektura-hesiak bazterten lan egin behar dugunaren edo egiten ari garenaren barruan, hori arkitektura-hesi agerikoa da, bertatik ezin baitira igaro. Orduan kasu honetan bai, izan ere, erdiko pasabidea irisgarria da sartu ahal izateko. Harriztatze hori konplexua da, are baita pertsona helduentzat ere harriztatzetik oinez doazenean, bada tira, gurpildun aulki batekin are zailagoa da. Egia da horrek nolabaiteko segurtasunik eza sor dezakeela, izan ere, egon daiteke bat-batean gurutzatzen duen jendea, edo bat-batean gurutzatzen duten haurrak, eta ibilgailu bat etor liteke, egia da. Pentsatzen dut, ziurrenik, hori izango zela hesiak bertan ipintzearen arrazoia. Egia da, era berean, Mirafloreseko kantoian ez dagoela hesirik ipinita eta fede ematen dut haurrak txirrianduan ere ateratzen direla, begiratu gabe, edozein datorrela ere. Hasiera batean ez dugu ipiniko esaten genuena kontuan izanik. Alde batetik, egon daitekeen segurtasunik ezaren kontua dago, baina beste alde batetik ziurrenik araudi bat urratzen ariko gara hortik igaro behar duten pertsonentzat hesi fisiko hori ipiniz. Bi gauzak aseko dituen irtenbideren bat ote dagoen ikusten saiatuko gara, ez dakit, inori ideia itzel bat bururatu ahal bazaio, baina egia esan kontu korapilatsua da. Erantzuna idatziz eman genien baina tira, argitzeagatik besterik gabe.

- Encina Castresana: Nola doaz Hoteleko obrak? Galdetu nahi dugun hirugarren gauza da. Laugarrena da ea ba ote dakizun zerbait gehiago Clariant eta Lucarterako zuntzari buruz, eta 2020. urterako aurrekontuen zirriborroren bat ba ote den, edo halako zerbait prest.

Alkatea: azkenekotik hasiz, zirriborrotzen ari gara bai, zerbait egiten ari gara momentuz, baina ez oraindik sakonki. Egia da, aurrekontuak apur bat erkatuz, guk zifrak apur bat begiratu, joan den legealdian uste dut izan zela, oposiziotik azken aurrekontuen gainean analisi konparatibo bat egin genuen apur bat, azken lau edo bost urteena, partida ezberdinak zer-nola aldatzen ziren ikusteko, hau da, agian inbertsioak ez direla diruditen partidak, ez direla gauza handia diruditenak, baina partida bakoitza zihoanez, eboluzionatu egin zuenez, eta beheak zeudela ikusten genuenez, aurrekontuaren gainean irudi egiazko bat emateko, besterik gabe. Orduan horretan gaude apur bat. Egia da, baita ere, zifrak behar ditugula, azken batean oraindik ez baitakigu Aldundiak, azkenean Foru Planetik aurren zenbat diru iritsiko den. Gauzak falta dira oraindik, orduan sartu nahi dugu...

Arkaitz San Jose Martinez: abenduko osoko bilkurarako izan nahiko genuke...

Alkatea: abendukoa ez, urtarrilekoa. Abenduan ez dago bilkurarik hasiera batean.



Arkaitz San Jose Martinez: bale, urte hasieran. Hasiera batean lantzen joan. Hori falta zaigu, Josebak esaten duena. Badira aurrekontuak itxi ez dituzten goragoko erakundeak, gurerako ekarpenak baldintzatzen dituztenak, eta ondoren baditugu zenbait kontsulta egiteko, egin genituen kalkuluak berriro eguneratu behar ditugu eta ikusi zer daukagun. Edozein modutara taldeetara pasako dugu, ekarpenak egiteko denbora izango duzue eta ahal direnak gaineratzen saiatuko gara. Esate baterako, Kuadrillara deitu beharrean gaude, era berean, Tokiko Erakundeen Finantzaketa-funtsaren kontuagatik eta beste konturen bat ea nola geratzen den.

Alkatea: bai, esate baterako Kuadrillatik, uste dut oraindik zaborren zerbitzuaren gaiaren kostua helarazi behar digutela, aurten sartu baitira baina helarazi egin behar digute, orduan bada, badakigu aurten areagotu egingo dela, eta badakigu zein igoera izango den, baina oraindik ez dakigu igoera zenbatekoa izango den, azkenean badira zenbait gauza... baina bai, hor gaude, bederen zifra erabilgarri batzuetan, esateko, beno, berogailua ateratzen bazaigu urtero gutxi gorabehera hainbeste orduan gutxi gorabehera urtero hainbeste aterako zaigu, nola ez den... Bada beno, hori bai joango garela esaten.

Hotelaren gaiarekin besterik gabe, elektrizitate-sistema ipintzeko egiten ari diren lanekin hasi dira dagoeneko. Dagoeneko bi aste inguru daramatzate bertan, eta han daude. Lehendabiziko eta bigarren solairua dira, eta ez da ezta halako obra bat... ez dut gogoan zein epetarako zegoen baita tira, ez da presazko obra bat, prest dagoenean hara eramango diren ikastaroak mugitzen joango dira eta dagoeneko erabilgarri izango da.

Eta zuntz optikoari buruz ere ez dugu albisterik. Joan den egunean hark ere deitu ninduen, beno, Clarianteko arduradunak mezu bat bidali zidan berritasunik ba ote zen jakiteko eta hasiera batean ezetz esan nion. Errepide saila da horretaz arduratzen ari dena. Zuntz optikoa industrialdera eramatea da kontua, herrian badaukagu eta, baina industrialdean ez dago zuntz optikorik, orduan Aldundia horretan lanean dago zilegi izan dadin, hori ere ez baitzen erraza. Arazoak zeuden, eta hasiera batean, Aldundiaren, Udalaren eta Telefonicaren artean ea gauzatzeko akordiorik dagoen. Baina tira, desjabetzeaz edo dena delako guztiaz Aldundia arduratuko da, orduan zain gaude, izan ere, oraindik ez dakigu zein zati dagokigun, zenbateko kostua izango den guretzat, hasiera batean alde berdinetan ordainduko baita, eta ez dakigu zein ekarpen egitea egokituko zaigun. Beraz, hasiera batean, ez dago albisterik.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen Saioa, lehenago aipatu egunaren seiak eta hogeita hamar minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.